





**Gertukoa.**  
**Kalitatezkoa.**  
*Konfiantzazkoa.*



Hemengoa  
izatea ona da

 **EROSKI**  
zurekin





URTARRILA **4**  
OTSAILA **8**  
MARTXOA **12**  
APIRILA **16**  
MAIATZA **20**  
EKAINA **24**  
UZTAILA **28**  
ABUZTUA **32**  
IRAILA **34**  
URRIA **38**  
AZAROA **42**  
ABENDUA **46**

## Urte berri on!

Joan zaigu 2025. urtea. Gertakariak beteriko urtea izan da, eta halantxik azaldu gura izan dizuegu zuei guztioi. Durangaldeko protagonistek bete dituzte ANBOTOk orrialdeak, eta horietariko izen batzuk azpimarratu gura genituzke. Eider Garcia berriztarra, esate baterako, errugbiaren tontorrean dabil. Frantziako Lehenengo Mailan jokatzeko du, Lyongo Lou taldean. Goretzi Barrutieta DRTko jokalarik gaztearen berri ere eman genuen, World Series txapelketan parte hartu eta gero, Australian. Eliteko beste kirolari bat Sandra Gomez da, 2025ean Dakar rallya amaitu zuen emakume bakarra. Berripaper honen orrialdeetan, protagonista hauen elkarrizketak helarazi dizkizuegu. Etorbizunean ere euren lorpenak berba izan gura genituzke.

Elitekoa zen beste pertsona bat gogoratzea ere ezinbestekoa da 2025eko errepaso honetan: Izaskun Ellakuriaga kazetaria. Gerediaga Elkarteko behargin nekaezina, Bizkaia Irratiko goizeko ahotsoa eta Erazeko zuzendari izandakoa. 60. azokan Ellakuriaga gogoratu zuten, modu xume eta hunkigarrian, berari gustatuko litzaiokeen legez.

Kultur arloko podiumean hiru izen daude: Leire Bilbao, Eneko Sagardoy eta Galder Gaztelu-Urrutia. Bilbaok Haur eta Gazte Literaturako Espainia saria eskuratu du. Sagardoyk Asier Altunaren *Karmele* filma estreinatu du, eta Gaztelu-Urrutia ere geldirik egoten ez dakien horietariko bat da. *Rich Flu* eta *El Hoyo 2* estreinatu zituen.

Durangaldeko elkarte eta eragileen lan eskerga ere azpimarratzekoa da. Gure komunitatearen oinarria zarete eta baita ANBOToren bidelagunak ere. Eskerrik asko 2025ean gure aldamenean izan zaretenoi. Elkarrekin, eragile, irakurle, babesle eta norbanako, etxekotzat zaituztegu.

Amaitzeko, hedabide honek 25 urte beteko ditu 2026an, eta, sare sozialetan esaten den legez, "gauratzakoak datoz".

Urte berri on!

**Jone Guenetxea** DURANGALDEA



**anboto**  
**kide**

Hiru: **Mojikar Sanchez Goleztuban**  
Hiru: **9.023**

**Oparitu AnbotoKide txartela**

Hileroko zozketa bereziak.  
Poltsikorako abantailak.  
Deskontuak Anbotoko zerbitzuetan. Eskelak...

**anboto**  
**kide**

Deitu  
946 816 558  
telefonora



# 'Rich Flu' eta 'El Hoyo 2' Gaztelu-Urrutiaren eskutik

'Rich Flu' urtarrilean heldu zen Hego Euskal Herriko eta Espainiako zinemetara, baita Durangoko Zugaza zinemara ere. Pelikula honetan, zinemagile abadiñarrak Mary Elizabeth Winstead, Rafe Spall, eta Lorraine Bracco aktoreekin lan egin zuen, besteak beste



Gaztelu-Urrutia, Jonah Hauer-King eta Mary Elizabeth Winstead aktoreekin. EPK

## Kultura ABADIÑO

Galder Gaztelu-Urrutia zine zuzendari abadiñarrak pelikula bi egin zituen nahiko denbora tarte laburrean eta ia paraleloan: *Rich Flu* eta *El hoyo 2*. Lehenengo euren kabuz egin zuten, sortu eta finantzatu, eta behin hori eginda hainbat herrialde-tako banatzaileei saldu zieten. Bigarrena *El hoyo* pelikula entzutetsuaren jarraipena da eta Netflix plataforma erraldoiaren babesa du. Gaztelu-Urrutiak urtarrilean ANBOTOrri aitortu zionez, prozesu biak "gogorak" izan ziren. "Bakoitza bere berezitasunekin, baina hemen gaudela. Biekin oso harro nago eta asko gustatu zaizkit, baina gogorra izan da. *Rich Flu*tik *El hoyo 2*-ko filmaziora hiru hilabeteko tarte baina ez nuen, eta, beraz, *El hoyo*ren bigarrena aurretik prestatzen joan behar nuen: horrela, taldea beharrez hasi zitekeen, lana aurreratzeko. Gero, bataren muntaia bestearen filmatzeagaz bat egin zuen, baina lantalde ona dudanez, konpondu gara", azaldu zuen zinemagile abadiñarrak.

Pelikula biak modu ezberdinean sortu zituen arren, egiteko modu antzerakoa eta estilo propioa erakutsi zituen abadiñarrak. Fikzioaren bitartez, Gaztelu-Urrutiak gaurkotasuna duten gaiak plazaratzeko gaitasuna erakutsi zuen. "Paradoxa sozialak atsegin ditugu eta gure gai garrantzitsu biak aberastasunaren banaketa

eta pertsonen arteko hartu-emanak dira. Pelikula entretenigarriak egin gura ditugu, ni ez naiz zinera pelikula aspergarriak ikustera joaten. Mezu sakonak edo gaurkotasuna dutenak atsegin ditugu, baina mezua bidaltzea baino gehiago, mezuaz berba egitea da gura duguna", gehitu zuen Gaztelu-Urrutiak.

*Rich Flu*ri dagokionez, pelikula erditze gogorra izan zuen. "Pandemia aurretik hasi ginen lan hau idazten. 2019an ekin genion gidoia idazteari, eta, hain zuzen ere, gidoiaren lehenengo tratamendua konfinatu gintuzten egunean erregistratu genuen. Pelikulak buelta asko eman du eta idazketa prozesu konplikatu izan du. Bestalde, finantziarioa ere oso konplikatu zen, tamaina handiko proiektua den neurrian. Ekoizpen aldetik ere erronka bat izan da", jarraitu zuen abadiñarrak.

*El hoyo 2* pelikulari dagokionez, *El hoyo* filmak nazioarte mailako arrakasta izugarria izan zuenez, dena "kakazteko" arriskua ere badagoela aitortu zuen Gaztelu-Urrutiak.

**"OSO HARRO NAGO PELIKULA BIEKIN, ETA ASKO GUSTATU ZAIZKIT, BAINA GOGORRA IZAN DA"**

## Sandra Gomez, Dakar rallya amaitu duen emakume bakarra

137 motozale parte hartzaileetatik Sandra Gomez izan zen emakume bakarra rallyan. 43. tokian amaitu zuen

### Kirola ATXONDO

Jaiotzez madrildarra den eta egun Atxondon bizi den Sandra Gomez gazte-gaztetatik izan du motoa bidelagun. Bere ibilbidean makina bat txapelketa irabazi du: Superenduroko munduko txapelketa 2016an, Hardendurokoa 2020an eta 2021ean, Nazioen arteko txapelketa zazpi bider eta moto elektrikoen munduko txapelketa behin, besteak beste. Baina lorpenik entzutetsuenak Dakar rallyak ekarri dizkio. 2022tik hona hiru bider parte hartu du. 2022an 62. amaitu zuen; 2023an

ezin izan zuen amaitu, arazo mekanikoengaitik; eta iaz ez zuen parte hartzeko aukerarik izan. Aurten, Fantic talde italiarragaz, bera izan da motoetan parte hartu duen emakume bakarra, eta 43. tokian amaitu du. "Parte hartu dudak Dakarrik gogorrena

**"HEMENGO TRADIZIOZKO AGURRA DANTZATU IZANA OHORE HANDIA IZAN ZEN NIRETZAT"**

izan da. Harea espero genuen baino bigunago zegoen, eta, gainera, oso lasterketa teknikoak izan da. Ibilbidea teknikoagoa da urterik urtera, profesionaleri begira amateurrentzakoa baino gehiago. Fisikoki exigentea izan da", adierazi zuen Gomezek lasterketatik bueltatu zenean.

Etxera bueltan, moto gidariaren lorpena ez zen oharkabea pasatu eta omenaldi bat baino gehiago jaso zuen. Cercedillan, bere sorterrian, egin ziotena espero zuela esan zuen, baina Apatan jasotakoa "sopresa" izan zela. "Ezusteke ederra izan zen. Ez nuen halakorik espero. Baditut lagunak hemen, baina ez daramat hainbeste denbora hemen bizitzen. Hunkigarria izan zen. Hemengo tradiziozko Agurra dantzatu izana ohore handia izan zen niretzat. Bene-benetan esker oneko nago".



Sandra Gomez Dakar rallyan.



# Durangon denda historikoei eusten

Kontsumo ohituren aldaketa betean, badira betiko familia negozioari eutsi gura izan dioten belaunaldi berriak. Maite Mancisidor bosgarren belaunaldia da izen bereko bitxi dendan; Txaber Arrillaga familiako laugarren belaunaldia da Silleron.

## Erreportajea DURANGO

Tokiko merkataritzak sasoi berrietara moldatu behar izan du ezinbestean. Denda berriak zabaldu eta zaharrak itxi. Dinamika horren barruan, badaude salbuespenak; negozioari eutsi gura izan dieten belaunaldi berrien kasua da. Ez dira asko, baina egon badaude. Esaterako, horren adibide dira Maite Mancisidor eta Txaber Arrillaga. Mancisidor familiak bitxi denda dauka Durangon, 1866. urtetik, eta Maite bosgarren belaunaldia da. "Ez dakit Mancisidorrek izango duen balunaldi berririk. Nire umeak txikiak dira aukeratzeko, baina negozioagaz jarraitzena badute,

eurek aukeratu dutelako izango da, ez presioagaitik".

Txaber Arrillaga familiako laugarren belaunaldia da Sille-

ron. "Dendaren izena mantentzea eta Internet garai hauetan negozioari eustea eguneroko erronka da", esan zuen Arrillagak.



Txaber Arrillaga eta Maite Mancisidor.

## Izaro Bizkaiko sagardoaren denboraldi berriko enbaxadore

2024an 83.000 litro sagardo natural ekoitzi ziren Bizkaian: "kolore argiko sagardoa, egituratua eta orekatua"

### Herririk herri ZORNOTZA

Urtarril amaieran, Izaro musikari mallabitarra enbaxadore zela, Bizkaiko Sagardoaren denboraldi berriari eman zioten hasiera. Aurkezpen ekitaldian esan zutenaren arabera, 2024an 83.000 litro sagardo natural ekoitzi ziren Bizkaian, itxarondakoa baino sagar gutxiago batu eta gero. Sagardoaren ezaugarriei dagokienez, aurreko denboraldikoaren antzekoak dituela azaldu zuten: "Kolore argiko sagardoa, egituratua eta orekatua. Klimatologia faktore erabakigarria da eta zuzenean eragiten dio azken produktuari. 2024ko uzta iazkoa baino txikiagoa izan da bolumenari dagokionez, neguan hotzik egin ez duelako, eta loraldian euri gehiegi egin duelako", azaldu zuen Jose Antonio Zamalloa Bizkaiko Sagardogileen elkarte-ko presidentek.



Aurkezpen ekitaldia. BIZKAIKO SAGARDOA

Bestalde, Bizkaiko sagardoa bertako sagarrekin egindakoa dela ere nabarmendu zuten Uxarte sagardotegian egindako ekitaldian. "Sagardo berriaren aldeko apustua egin dugu, naturala ahaztu barik", esan zuen Zamalloak.



**IZURTZA**  
UDALA  
Tel.: 946 813 548  
www.izurtza.net





Hawari-Berriozabalgoitia familia.

## "Nazioarteak gura duena egiten utzi dio Israeli"

Hawari-Berriozabalgoitia familia palestinar-euskalduna Durangon bizi da eta ez dio begirik kentzen Palestinari. ANBOTO urtarilean batu zen eurekin, Hamasen eta Israelen arteko su etena indarrean sartu berritan eta Donald Trump AEBetako presidente izendatu berritan

### Erreportajea DURANGO

Hawari-Berriozabalgoitia familia palestinar-euskaldunak bere etxeko egongelan hartu zuen ANBOTO urtarril amaieran, Hamasen eta Israelen arteko su etena indarrean sartu berritan eta Donald Trump AEBetako presidente izendatu berritan. Durangon bizi den familiak ez dio begirik kentzen Palestinari. Nadia Hawariren berbetan, su etena "berandu" etorri zen. "Denok geunden zain su etena noiz etorriko, baina berandu dator, askoz ere lehenago heldu zitekeen. Eta dena esaten hasita, askoz hobe litzateke halakorik sekula hasi izan ez balitz. Nik, adibidez, sorpresa hartu dut. Su etena iragarri zutenetik indarrean sartu zen arte, areagotu baino ez zituzten egin palestinarren kontrako erasoak, bonbardaketak eta hilketak", adierazi zuen Nadia Hawarik.

Su etena iragartzeaz batera, nazioarteko adituek adierazi zuten su eten hori "hauskorra" izan zitekeela, eta horrelaxe izan zen, hile bi ere ez zuen iraun eta. Urtarrilean, su etenaz galdetuta, Anis Hawarik haxe erantzun

zuen: "Su eten honen arazoa da hiru fase dituela eta lehenengoa baino ez dagoela adostuta. Horrek egundoko kezka sorrazten digu. Historian lehenengoz, genozidio bat ikusi dugu telebistako pantailan. Ahalik eta herritar zibilik gehien hil dute, eta herrialdea ahalik eta gehien suntsitu. Eta erasoen helburuak ez dira erresistentziako kideak izan, herritar palestinarrek baino, zibilak. Hau Ameriketako Estatu Batuek administratutako eta Israeliek gauzatutako gerra bat izan da". Orokorrean Nazioarteko estatuek gura duena egiten utzi diotela Israeli gaineratu zuen Nadia Hawarik.

Palestinarentzat gura duten etorkizunaz galdetuta, erantzuna argia izan zen. "Lurra berreskuratzea eta lurraldera bueltatzea da palestinarren helburua. Gero, han egonda, Autodeterminazio Eskubidea aldarrikatu eta Estatu Palestinarra sortu gura genuke. Estatu demokratiko, anitz, multietniko eta askea gura dugu, sionismorik bakoa, musulmanen, juduen zein kristauen etxea izango dena", esan zuen Anis Hawarik.

## Kiroleneren egoitza berria Landakon eraikiko dute

Arripauseta auzuneko etxebizitza berrien eta Open gimnasioa zenaren arteko orubean eraikiko dute

### Herririk herri DURANGO

Iazko urte amaieran Kirolene Tabiran egitea baztertu ondoren, Durangoko kirol irakaskuntzen ikastetxe publikoaren egoitza berria Landakon eraikiko dutela jakinarazi zuten urtarrilean. Arripau-

sueta auzuneko etxebizitza berrien eta Open gimnasioa zenaren arteko orubean eraikiko dute. Lursail horrek 3.484 metro karratu ditu.

Kokalekua erabakita, Durangoko Udalaren eta Jaurilaritzako Hezkuntza Sailaren arteko laga-

pen-hitzarmena sinatzea izango da hurrengo pausoa. Eta, paraleluki, Kirolenek behar dituen instalakuntza espezifikokoak zehazten jarraitzea dela asmoa azaldu zuten. "Lantalde bat aspalditik dabil buru-belarri horretan lanean", esan zuen Begoña Pedrosa Hezkuntza sailburua.

Behin hori eginda, aurreproiektua eta proiektua bera idatziko dituzte. Hori guzti hori kontuan hartuta, "lanak 2027an martxan izatea" dute helburu, Mireia Elkoiroribe alkatearen esanetan.



Udaleko eta Eusko Jaurilaritzako ordezkariak Kirolene eraikiko den orubean.



FURESA

Zorionak eta urte berri on!



## Elkarretaratzea Boroan, lan heriotza salatzeko

2024ko amaieran 41 urteko langile bat hil zen Zornotzako Forest Traffic enpresan, beharrean zebilela

**Herririk herri** ZORNOTZA

Zornotzako Boroa enpresa-parkean dagoen Forest Traffic enpresan 41 urteko langile bat hil zen abenduaren 30ean. Langilea inbentario lanak egiten zebilen biltegian, orga jasotzaile batez, eta garraiatzen zebilen zamaren zati bat gainera jausi zitzaion. Lan heriotza salatzeko, LAB, ESK, STEILAS, EHNE-etxalde eta HIRU sindikatuek elkarretaratze bateratua egin zuten.

Horrez gainera, 2015ean enpresa berean beste langile bat hil zela gogoratu zuten.



Elkarretaratzeko argazkia.

## Emakume bati eraso egin diotela salatu du DAFAk

Indarkeria matxistagaitiko kasuak artatzeko, ekainean Genero Indarkeriaren Kontrako Unitatea handitu dute



DAFAren mobilizazio bat, Durangon.

**Herririk herri** DURANGO

Egun argiz paseatzen zebilen emakume bati eraso egin ziotela salatu zuen DAFAk: "Gizon batek dei egin zion emakumeari, eta harengana hurbildu zenean gizona masturbatzen hasi zen emakumeari begira zegoela. Emakumeak aurre egin zion eta tipoak alde egitea lortu zuen".

Asanblada feministak kritikatut egin zuen emakumeak Erantzintzan jasotako erantzuna. "Erantzuna argia izan zen: ezin zela salaketarik ipini. Kontua da era honetako gertakariak ez direla delitutzat jotzen", adierazi zuten oharrean.

Indarkeria matxistagaitiko kasuak artatzeko, Durangoko Genero Indarkeriaren Kontrako Unitatean lau ertzainek jardungo dutela jakinarazi zuten ekainean.

## Euskararen erabilerak gora egin du Zornotzan

Klusterak jakinarazi zuenez, azken bost urteetan % 3,1 hazi da euskararen kale erabilera

**Herririk herri** ZORNOTZA

Soziolinguistika Klusterak Zornotzako hizkuntza erabileraren kale neurketaren emaitzak aurkeztu zituen urtarri-lean. Bertan jakinarazi zuenez, euskararen kale erabilerak orain hamar urteko maila berreskuratu zuen.

## Iker Trigo zornotzarra Galiziako Rías Baixaseko taldeburu

Zornotzako txirrindulariak "gozatzen" jarraitzea eta profesioaletara heltzea du helburu nagusi

**Kirola** ZORNOTZA

Denboraldi berriagaz batera, Iker Trigo txirrindulariak taldea aldatu zuen. Azken denboraldi bietan bere etxe izan duen Laboral Kutxatik -Euskaltel Euskadiren filiala- Galiziako Vigo-Rías Baixas taldera joan zen. "Giroz aldatu gura nuen. Rías Baixas ondo antolaturiko taldea dela ikusten da. Bila nenbilen baldintzak betetzen ditu eta pozik nago", adierazi zion ANBOTOri denboraldi aurrean. Euskaltel Euskadiren aterkipetik irten zen arren,

Trigok ez dio profesioaletara heltzeari uko egiten. "Nire helburu nagusiak profesioaletara heltzea izaten jarraitzen du", esan zuen. Horregaz batera, bere talde berrian txirrindularitzaz "gozatzen" jarraitu gura duela esan zuen.

Eta horrela egin du denboraldia, gozatzen eta emaitza onak lortzen. Esaterako, Nafarroako itzulian onenen artean ibili zen, eta seigarren amaitu zuen. Eta Espainiako Txapelketan zilarrezko domina eskuratu zuen kronoigoeran.



Iker Trigo ezkerrean, Espainiako Txapelketako podiumean.

**FAMILIA GARA**

Elkarbanatuz, elkarlanean.

**KONPROMISOA GARA**

Gure ingururekiko eta munduarekiko.

**HEZKUNTZA GARA**

Aktiboak, berritzaileak, inklusiboak eta humanistak.

**DURANGO GARA**

Eraginez, sortzaileak izanez.

**BESTEENTZAT ETA BESTEekin, GURE MISIOA PERTSONEN ZERBITZURA**



# Lau hamarkada eta Oizko hegazkin istripua gogoan

1985eko otsailaren 19an hegazkin batek istripua izan zuen Oizen. Sasoi hartan Jose Antonio Izurieta 'Txikuri' suhiltzailea zen lurretako basean. Egun haietan bizitako tragediaren lekuko izan zen eta bere testigantzak tragediaren dimentsioa gogorarazi zuen

## Erreportajea DURANGALDEA

Otsailaren 19an 40 urte bete ziren hegazki batek Oiz mendian istripua izan zuela. Euskal Herrian izandako aire istripurik larriena izan zen. Jose Antonio Izurieta 'Txikuri'-k 47 urte zituen Oizko hegazkin istripua gertatu zenean. Hondamendi hura iltzatuta geratu da bere memorian. Suhiltzailea zen, eta hegazkinak Oizko ETBren antena jo zuenean, bera lanetik irten berri zegoen. "Sasoi hartan, 24 orduan lan egiten genuen, eta beste 24 orduan atseden hartzen genuen. 08:00etan nire guardia amaitu, eta kafea hartzera joan ginen taberna batera. Etxera joan nin-



'Txikuri' Oizko tontorrean, istripuan hildakoen omenez lore-sorta eramaten.

tzenez, egun hartan Montejo ate berria ipintzen zebilela dut akorduan, lapurretan egin zigutela. Momentu hartan andreak esan zidan Oizen hegazkin istripua gertatu zela. Basera joan nintzen, ziztu bizian, baina lankideak joanda zeuden. Antenatara joan nintzen *todoterrenoagaz*", gogoratu du Izurietak.

Iberia konpainiaren Boeing 727a, El Alhambra de Granada izenekoa, ETBren antena jo eta Mallabia aldera jausi zen. Istripuak 148 hildako utzi zituen: 141 bidaiari eta tripulazioko 7 kide. 'Txikuri'-k ANBOTOrri adierazi zionez, Mallabira heldu zenean "deskontrola" topatu zuen. "Ika-mika sortu zen, Guardia Zibilak eta Ertzaintzak, biek, erreskate lanen agintaritzak hartu gura zutelako. Beste suhiltzaile batzuk ere etorri ziren. Hegazkinak apurtuta zituen hegoak, eta bidaiariak kiskalita zeuden fuselajearen barruan. Gu heldu ginenerako ez zegoen surik. Kea, bai. Trailer bi etorri ziren zurezko kaxekin, gorpuak bertan sartzeko. Armada ere etorri zen. Landa hark sasiak zituen eta garbi-garbi utzi zuten, operatiboa

bertan ipintzeko", azaldu zuen suhiltzaileak.

Istripuaren ondorengo egunak ere "gogorrak" izan zirela aitortu du iurretarrak. "Biharamunean guardia izan nuen. Sua amata-tuta zegoen arren, kontrolatzen ibili ginen. Iurretakosuhiltzaileok forentseari erreskate lanetan laguntzen ibili ginen, zortzi-hamar bat egunean, gauzak egon-kortu baziren ere. Erreskatearen amaieran gorpuak Garellanora eraman zituzten, identifikatzeko", gaineratu zuen.

Izurietak gogoan du istripuaren ondoren hainbat herritar bertaratu zela hegazkina zegoen eremura, kuriositateak bultzatuta. "Guardia Zibiliak ez zuen uzten han inguruan ibiltzen, baina jendea joan egiten zen. Hegazkin txatalak eta horrelakoak hartzen zituzten. Ez dakit, 'Granadako Alhambra' hegazkinaren oroi-garri lez edo", aipatu zuen.



Ikusi bideoa

## Durangaldeko aspaldiko abesti eta jolasak 'Txalopin txalo' liburuan

Proiektua Mankomunitateak bultzatu, Labayruk gauzatu eta Berbaro euskara elkarteak dinamizatu zuen

### Erreportajea DURANGALDEA

Durangaldeko Mankomunitateak bultzaturiko, Labayruk gauzaturiko eta Berbaro euskara elkarteak dinamizaturiko *Txalopin txalo* ekimenak eskualdeko hainbat pertsonaren ekarpenak jaso ditu

lehengo abesti eta jolasak jaso eta transmititu ahal izateko. Marije Abaunza, Arantxa Abaunza, Pilar Ania eta Amaia Zearsolo abadiñarrak proiektu horretan parte hartu dutenatariko batzuk dira. Lau emakumeek nabarmendu zuten,

abesti hauek "balio handia" dute eta transmisioa "oso garrantzitsua da". "Erakutsiz gero aurrera egingo dute, eta transmititu egin behar ditugu, bizirik mantendu daitezen", nabarmendu zuen Zearsolok. Eta transmisio horretarako, abestiak liburuan jasota izatea garrantzitsua dela azpimarratu zuten.



Ikusi bideoa



Marije Abaunza, Arantxa Abaunza, Pilar Ania eta Amaia Zearsolo.







Dendak Bai Fest.

## Saltokiak kalera Dendak Bai Fest ospatzeko

Dendak Bai elkarteak antolatuta, Durangoko saltokiek kalera atera zituzten euren produktuak

**Herririk herri** DURANGO

Dendak Bai merkatari elkarteak Dendak Bai Fest jaialdia antolatu zuen otsailean Durangon. Landako Gunean egindako aste-buru osoko azokan, haurren eta helduen moda, kirol arropa, lentzeria, lurrin denda, ile-apaindegia, liburu denda eta publizitate zerbitzuak egon ziren, besteak beste.

Azokaz gainera, Dendak Bai Fest-en gune gastronomikoa eta askotariko ekitaldiak ere egon ziren: umeentzako sukaldaritza tailerra, ipuin kontaketa eta usaimen-bingo dibertigarria, besteak beste.

## Bost urteren ondoren, zaborte-giko auzibidea zabalik

Otsailaren 6an bost urte bete ziren Zaldibarko Verter Recycling hondakindegia amildu zenetik

**Herririk herri** ZALDIBAR

2020ko otsailaren 6an milaka tona hondakin amildu zen Zaldibarko Verter Recycling zaborte-giko. Hondakindegiko langile bi hondakin artean harapatuta hil ziren: Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran. Durangaldean bertan inork gutxi ezagutzen zuen hondakindegia albistegi guztietan azaldu zen. Euskal Herrian inoiz gertaturiko ingurumen hondamendirik handienetarikoaren dimentsioa kapituluka aletu zuten. Zaborte-gia amildu izanaren ondorioz, auzibide bi zabaldu zituzten Duran-

goko Epaitegian. Lehenengoa zarratu egin zuten, hiru akusatuek (enpresaren arduradunak) fiskaltzagaz eta hildako beharginen familiekin akordioa lortuta. Bigarren auzibidea, ingurumen delituena, oraindino instrukzio fasean dago. Zaldibarko Udala akusazio legez aurkeztu da prozesu judizial honetan.

Bost urte geroago, hondakindegia-aren egonkortasuna dela eta, auzokideek ANBOTOrri esan zioten "arduratuta" jarraitzen dutela. "Gertatu zena ahaztuz doala esango genuke", esan zuten.



Zaldibarko hondakindegia gaur egun.

## "Berba gehiago egiten da buruko gaixotasunei buruz"

Iratxe Etxebarria urte askoan aritu da kazetari, gaixotu zen arte; komunikatzen jarraitzen du orain, berbaldiak ematen



Iratxe Etxebarria.

**Kultura** DURANGO

Iratxe Etxebarria (Dima, 1979) urte askoan aritu da kazetari, laneko estres maila handiaren eraginez gaixotu zen arte. Orduko bizipenak oinarri hartuta, dimoztarrak liburua bat idatzi zuen: *7.300 miligramo eszitalopram*. Buruko gaitzei buruz geroago eta berba gehiago egiten den arren, ikuspegi positiboago batetik berba egin behar dela adierazi zuen Etxebarriak Durangoko Hitz liburu denda egindako aurkezpenean. "Geroago eta berba gehiago egiten da buruko gaixotasunei buruz, baina beti ere alde negatibotik. Nik kontatu gura dudana da gaixotu egin nintzela. Eta osatu naiz neure osasunaren ardura hartu dudalako. Horretarako, gauzak alde izan ditut, hori ere esan behar dut, baina mezu bai-

kor hori zabaltzea erakargarria dela uste dut. Buruko gaixotasunetik ere osatu daiteke, baina ardura hartu behar dugu, ezin dugu utzi medikuen pilulen esku bakarrik", esan zuen.

Etxebarria laneko estresagaitik gaixotu zen arren, liburua idaztearen lana bateragarria egin zitzaion. "Niretzat ez da lan bat izan. Idazten hasi nintzen, baina ez liburu bat argitaratzeko, gertatzen zitzaidana nik neuk ulertzeko baino. Buruko gaixotasun bat duzunean, gatz da zer gertatzen zaizun azaltzea. Horregaitik hasi nintzen idazten. Horregaz batera, asko irakurtzen hasi nintzen. Hori kontatu egin gura nuen. Eta gero, publikatzea, ez da beharrian bat izan; liburua bera terapia barruko kontu bat izan da lana baino gehiago", gaineratu zuen.

IKASTOLAK

ibaizabalikastola.eus

kurutziagaikastola.eus

# Derrigorrezko Hezkuntza

## Batxilergoa

### Lanbide heziketa

- HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA ETA DBH
- BATXILERGOA
- GIZARTEATZETZKO GOI TEKNIKARI TITULUA
- HAUR HEZKUNTZAKO GOI TEKNIKARI TITULUA
- ETENGABEKO FORMAZIOA: IKASTARGAK



# Goreti Barrutieta, Durangotik mundura

Goreti Barrutieta Barrenetxea durangarrak, Durango Rugby Taldeko harribitxi gazteak, urte hasieran World Series txapelketa jokatu zuen Australian. Txapelketa horretan Espainiako selekzio absolutuagaz debuta egin zuen eta entsegu bat lortu zuen

## Kirola DURANGO

Goreti Barrutietak bere etxea du Durango Rugby Taldea. 17 urte gaz, durangarrak bizkor egin du gora eta ez zaio ausardiarik falta munduko onenen kontra lehiatzeko. Urte hasieran, errugbi 7ko Espainiako selekzio absolutuagaz debutatu zuen Australian, World Series txapelketaren barruko jardunaldian. Barrutietak aitortu zuen ez zuela itxaroten Espainiako selekzio absolutuagaz debutatzea: "Ez nuen espero. Egun batetik besterako kontua izan zen. Jokalari bi lesionatu egin ziren eta ea Australiara joango nintzen galdetu zidaten. 'Ba goazen', erantzun nien".



Goreti Barrutieta.

Talde nagusiagaz jokatzeko oso esperientzia ona izan zela esan zuen, eta egokitzea "ondo" joan zela: "Errugbi zelaira sartu nintzenean ez nuen sinesten. Jende asko harmailetan eta munduko jokalaririk onenak zelaian. Txikitan, horrelako partiduak eta jokalaria telebistaz ikustean, ametsa iruditzen zitzaidan ni euren mailara heltzea. Eta orain hor egon naiz. 'Zer egiten dut nik hemen, 17 urte baino ez ditut eta!', pentsatu nuen".

Bestalde, munduko onenen kontra bere burua lehian "ondo" ikusi zuela adierazi zuen durangar gazteak. "Ondo sentitu nintzen. Maila handiko jokalaria dira eta igartzen zen euren lana errugbia dela; hau da, dedikazio osoa horretara dutela. Beldurrik barik jokatzeko ahalgintza nintzen", esan zuen. Eta horrelaxe egin zuen, beldurrik barik jokatu. Gainera, Irlandaren aurkako partiduan entsegu bat egin zuen eta taldeak garaipena lortu zuen. "Gogoan dut baloia hartu eta segituan korrika hasi nintzela, entsegu marraraino heldu arte", gogoratu zuen.



Amenabar eta Amuriza.

## 'Anastasini zirkua' eskualdean aurkeztuta

### Kultura DURANGALDEA

Iberiar penintsula gurutzatzen zebilela, 1936ko altxamendu faxistak Lodosan harrapatu zuen Anastasini zirku italiarra. Gertaera hori ardatz hartuta, Miren Amuriza berriztarrak eta Malen Amenabarrek album ilustratua ondu zuten, *Anastasini zirkua*. "Espainiako gerrari buruzko kontakizun bat dugu denok buruan. Hori aldatzea izan da erronkarik handienetarikoa", azaldu zuten.

## Oier Ardanazak Teknei Zornotza taldean aurkitu du egonkortasuna

Durangarrak sei urte daramatza saskibaloiko zilarrezko ligan jokatzeko, azkenengo laurak Zornotza STn

### Kirola ZORNOTZA

Bartzelona eta Gran Canaria taldeen harrobietan hainbat urte eman eta gero, Oier Ardanaz Teknei Zornotza taldean aurkitu du egonkortasuna. Azken lau denboraldiak Zornotza STn egin

ditu, eskolta postuan. "Beste gazte batzuenagaz alderatuta, nire bizimodua desberdina izan da. Neure helburuak betetzeko, etxetik joan behar izan nuen. Ez zen erraza izan: saskibaloia eta ikasketak, lagunak eta familia urrun...

Baina distantziatik begiratuta, ez naiz damutzen. Lagun asko egin dut, bizimodu ona izan dut eta oso pozik nago egin dudana-gaz", esan zuen Ardanazak.

Bestalde, Zilarrezko Ligan sei urtez jokatzeko dabilen durangarrak Zornotza STn dituen "egonkortasuna eta onurak" azpimarratu zituen: "Orain etxean nago, lagunekin, familia ondoan... Erosotasuna eta konfiantza garrantzitsuak dira jokalaria batentzat, eta hori igartzen dut, egia esanda".



Oier Ardanaz.







**Elorriko udala**

**Elorrio urte osoko turismoa**

Herriko Plaza, 48230 Elorrio (Bizkaia) · Tel.: 94 658 712

[www.elorrioturismo.eus](http://www.elorrioturismo.eus)





## 'Berreraikitze aroa' kalean, 'Heitxi'-ren lehenengo lana

Musikari zornotzarrak etxekoen eta herrikideen aurrean aurkeztu zuen bere lehenengo lan luzea

**Kultura** ZORNOTZA

Eider Etxeandia 'Heitxi'-k bere lehenengo disko luzea kaleratu zuen: *Berreraikitze aroa*. Musika-ri zornotzarrak azaldu zuenez, intro bat eta bederatzi abestiz osaturiko lana da. "Lehenengo lan hau oso bideografiko geratu zaidala uste dut", azpimarratu zuen.

## Nassourou Ben Hamedek irain arrazistak jasan ditu

Amorebieta klubeko futbolariak Cultural Leonesa taldearen zelaian jasan zituen irainak

**Kirola** ZORNOTZA

Nassourou Ben Hamed futbolariak bost urte daramatza estatuan bizitzen, eta hau estreinako urtea du Amorebietan. Otsailean, Cultural Leonesa taldearen futbol zelaian partidua jokatzen zebilela, Amorebietako futbol jokalaria irain arrazistak jasan zituen. "Kolpe bat hartuta zelatik kanpora nengoen, medikua- ren arreta jasotzen. Irainak entzuten hasi nintzen harmailatik, baina zelai guztietan entzuten direnen modukoak ziren, denbora galtzen nenbilela eta

antzerakoak. Baina pertsona bik 'puto negro, puto negro' esan zidaten. Buelta erdi hartu eta identifikatu egin nituen. Begira geratu nintzaie eta 'puto negro, vuelve a tu patera' esan zidaten", adierazi zion Amorebietako jokalaria ANBOTOrri.

Futbolariak laugarren epai-leari kontatu zion gertaturikoa, eta honek epaile nagusiari. Orduan, arrazakeriaren kontrako protokoloa aktibatuta zuten. "Bi-hiru minutuan partidua geratuta egon zen. Ea partidua aurrera egin zezakeen galdetu zidaten,



Nassourou Ben Hamed, entrenamendu saio batean.

eta nik baietz esan nien, azken batean horretara joan nintzela, jokatzerat", gaineratu zuen.

Bestalde, Cultural Leonesaren erantzunak harritu egin zuela aitortu zuen Amorebietako jokalaria. "Cultural Leonesak

ateratako komunikatuan gezurtizat jo ninduten. Nik ez nien klubari eta Cultural Leonesaren zaleei ezer leporatu. Hala ere, neure klubaren eta taldekideen babes osoa sentitu nuen hasieratik", gaineratu zuen futbolariak.

## "Mari kargeria oso emakume herrikoia izan zen Lekeition"

Maria Igartua abadiñarra zen sortzez; Lekeitiora bizitzera joan, eta paketeak dendarik denda banatzen zituen han



Ana Goitia, Maria Igartuaren alaba.

**Gehigarria** DURANGALDEA

Zendu zenetik hamarkada batzuk joan diren arren, Mari 'kargeria' bizi-bizirik dago lekeitiarren oroimenean. Abadiñarra zen sortzez, eta Lekeitioko kaleetan lan egin zuen, paketeak dendarik denda gurdian banatzen. Bego Goitia haren alabetariko bat da. "Maria Igartua Unzueta ziren bere izen-abizenak, baina Lekeition *Mari kargeria* legez zen eza-guna. Abadiñoko Sagasta auzoan jaio zen, Errekalde baserrian. Bost neba-arreben artean zaharrena zen gure ama, baserritarra".

## Landa eremuko emakumeen gaineko testigantzak jaso dituzte

Ana Urkidik eta Anderebideko kideek jaso dituzte testigantzak; "sorpresa handiak hartu ditugu"



Ana Urkidi, Ibarretxe kultur etxearen kapoaldean.

**Gehigarria** IURRETA

Ana Urkidi eta Anderebideko kideak baserririk baserri ibili ziren atzoko eta gaurko emakumeen bizimoduak eta pentsamenduak batzen. Itxaroten zuena baino askoz gehiago eman dion esperientzia izan zela esan zuen Urkidik, eta oso aberasgarria izan zela: "Testigantzetan sorpresa handiak hartu ditugu. Hain inguru txikian hainbeste sorpresa hartzerik ez nuen inondik inora espero. Azken batean, Iurretan ibili gara, herri txiki batean".

Urkidik esan zuenez, adin guztietako 28 emakumegaz egin zuten hartu-eman, eta eurretari-ko 22 elkarrizketatu zituzten. Nagusienak 96 urte ditu, eta gazteenak 19. Arlo pertsonalean "oso esperientzia aberasgarria" izan zela adierazi zuen Urkidik.

# URRUN IRISTEKO, GERTU.

Andramari Zornotzako ikastola

- 0tik 18 urtera arte
- Bisita pertsonalizatuak

ANDRAMARI ZORNOTZAKO IKASTOLA

IKASTOLAK

Larrea auzoa s/g 48340 Zornotza | 94 673 29 50 - zornotza@ikastola.eus | www.andramarizornotzakoikastola.eus





Mikel Aretxaga.

# "Bonbardaketan obus bat sartu zen horma batetik"

Aurten 88 urte bete dira italiar faxistek Mola jeneralaren aginduz Durango, Abadiño eta Elorrio bonbardatu zituztenetik. Sarraski hartako lekukoa da Mikel Aretxaga Motxobe (Durango, 1932). Gertakari latz haiek ez ditu ahaztu gura

## Erreportajea DURANGO

Martxoaren 31n 88 urte bete ziren faxistek Durango, Abadiño eta Elorrio bonbardatu zituztela. 4 urte baino ez zituen arren, Mikel Aretxaga Motxobek ondo gogoan ditu egun hartako oroitzapen latzak. Goizeko bonbardaketa etxeko beheko solairuan pasatu zuten. Arratsaldekoa, Iurretako Goiuria auzoan. Halaxe azaldu zuen ANBOTOri eskainitako elkarrizketan.

Madalena auzoa garraiobideen zentroa da momentu honetan Durangon. Mende bat atzera eginda, inguru horilanda eremua zenean, Olleria legez ezaguna zen etxean bizi zen Aretxaga. 92 urteagaz, memorian garbi-garbi

gorde du txikitik bizitakoa: Durangoko bonbardaketako hegazkinen zarata eta baita hile batzuetara bueltatzerakoan aurkitutako triskantza ere.

"Hasieran ez genekien zer gertatzen zebilen. Baina gero albisteak heltzen hasi zitzaizkigun. Gure familia buzingilea zen eta etxearen beheko aldean tailerra zuten. Hara bajatu ginen. Labe handi bat geneukan eta goizeko bonbardaketan hantxe sartu ginen. Bonbardaketa amaitu zenean, zaratarik entzuten ez genuenez, irten egin ginen", gogoratu zuen Aretxaga. "Esaten zutenek, hegazkinak kargatzera joan ziren eta beste bonbardaketa bat aurreikusten zen. Ordu bi eta erdi in-

guru genituela esan ziguten, eta alde egitea erabaki genuen. Aitak etxeko atea giltzagaz zarratu eta Iurretako Goiuria auzora joan ginen, bai nire familia eta baita gure ondoan bizi zen osabarena ere. Hango elizpean pasatu genuen arratsaldea. Terriblea izan zen. Arratsaldeko bonbardaketa Goiuriatik ikusi genuen", gaineratu zuen durangarrak.

## Bilboko bonbardaketa

Goiuriatik Oromiñora joan ziren. Baina Aretxagaren arrebatariko bat, Felisa, ez zen joan. "Ikastolako andereñoa izan zen. Eusko Jaurlaritzak abisua eman zion eskolako ume guztiak Durangotik ateratzeko, bestela denak

hilko zirela. Feli eta beste hainbat irakasle eta ume talde Santandererara joan ziren. Itsasontzien zain geratu ziren han. Iparraldera joan zen, hainbat umeagaz", esan zuen Aretxagak.

Aretxagaren familiak eta haren osabarenak Oromiñoko eskolan pasatu zuten gaua. "Durango txikituta zegoela esan ziguten. Gauzak horrela, Bilbora joatea pentsatu genuen, amaren ahizparengana. Lau edo bost hilabete egin genituen Bilbon. Baina Franco bertara sartu zen eta bonbardaketa hori ere bizi izan genuen", gaineratu zuen. Emozionatuta kontatu zuen Durangora bueltatu zenekoa: "Bost urte nituen arren, ondo gogoratzen dut momentu hura. Bonbardaketan obus bat sartu zen horma batetik, eta zulo handi bat egin zuen. Aitaren eta amaren gela zeharkatu zuen eta beheko solairura heldu zen. Buztina lantzeko tresnen artean geratuzen. Ordu txiki bat geneukan, baina ez geneukan hazirik ereiteko. Geroago, osaba bere familiagaz etorri zen".

## Gerraostea

Gerraostean, ezagunen artean bonbardaketaren inguruan berba egiten zuten. Baina orokorrean ez, durangarrak azaldu zuenez. "Frankisten propagandaren arabera gorriak izan ziren bonbardaketaren egileak. Baina guk bagenekien ez zena hala. Kontu handiz ibili beharra zegoen. Horregaitik, garrantzitsua da hurrengo belaunaldiari gertatu zena gogoraraztea, ez ahazteko", nabarmendu zuen.



Ikusi bideoa



2024ko azaroko azterketa. EUSKADI.EUS

## Saibiko aurkikuntzak ezagutarazi zituzten

### Herririk herri MAÑARIA

Saibigainen egindako lanak ezagutarazi zituen Gerediaga elkarteak, martxoan. Urteotako prospekzioetan ateratako elementuekin erakusketa egin zuen, baita berbaldia ere lanen emaitzak azaltzeko. Gerra zibileko gudari baten hezur hondarrak berreskuratu zituzten. Geroago, azaroan, Saibigaineko hobotik gorpuzki baten desobiratzea egin zuten.



Ane Luzarreta eta Laida Zapre.

## 'Xerra': kultur gune berria Durangaldean

### Erreportajea ZALDIBAR

Durangaldeak beste proiektu kultural bat du martxotik: Xerra. Ane Lusarreta eta Laida Zapre donostiarrek gidaturiko proiektua da, ardatz bi dituena: batetik, Xerra estudioa dago, sortzaileek euren lanetarako baliatuko dutena. Bestetik, izen bereko gunea dago, zaldibartar eta eskualdeko herriar guztiei begirako kultur gunea.



Ikusi bideoa

## Bonbardaketaren lehenengo oroimen ekitaldia Irazabal barik

Martxoaren 31n Andra Mariko elizpean egiten den ekitaldian Jon Irazabal historialaria izan zuten gogoan

### Herririk herri DURANGO

Aurten 88 urte bete dira faxistek Durango bonbardatu eta 213 lagun hil zituztenetik. Urte askoan isiltasuna nagusitu da gaiaren inguruan. Gerraosteko errepre-sioak eta minak gertaturikoa

ahantzurara eramane zuten. Tes-tuinguru horretan, Jon Irazabal historialariak, gaia argitu guran, hainbat ikerketa lerro zabaldu zuen. Gaur egun ezagutzen dugun hainbat datu iurretarrari esker dakigu.

Irazabalek makina bat artxibo eta liburutegi arakatu zuen gertaturikoa ezagutu guran. Jakin-min asezin horri Gerediaga elkartearen jubilatutako ostean ere eutsi zion. Historialaria joan zen abuztuan zendu zen eta hutsunea utzi zuen memoria historikoaren ikerkuntzan. Gerediagak eta Kriskitinek Andra Marian egiten duten oroimen ekitaldi herrikoian iurretarra falta izan duten lehenengo aldia izan da aurtengoa. Hala ere, bere memoria eta ekarpena han izan ziren.



Jon Irazabal.



# Euskara teknikariaren lanpostua auzian Durangon

Durangoko Udalak euskara teknikariaren lanpostua kendu du eta ardura postu berria sortu du trukean. Lanpostu berri horretako langilea euskara eta hezkuntza arloak garatzeaz arduratuko da, baita herritartasun arloko sail guztiak koordinatzeaz ere

## Herririk herri DURANGO

Durangoko udalbatzak aldaketa bategin zuen plantilla organikoan: euskara teknikariaren lanpostua erretiratu zuen, eta ardura postu berria sortu zuen trukean. Figura berri hori euskara eta hezkuntza arloetako arduraduna izango da aurrerantzean, eta, zeregin

horiez gainera, herritartasun arloko sailak koordinatzeko ardura ere izango du: euskara, hezkuntza, kultura, jaiak, gazteria eta kirol sailak koordinatzeko betebeharrak, hain zuzen ere. EAJk defendatu zuen "Euskara udaleko zuzendaritza batzordean" egongo dela lehenengoz. Hala

ere, auziak aurrez aurre ipini zituen gobernu taldeko kideak eta oposizioko alderdi nagusiak. EH Bilduk eta Herriaren Esku-bideak gogor kritikatu zuten erabakia euskararen beharriari ez diela erantzuten argudiatuz. EAJk eta PSE-EEK erabakia defendatu zuten.



Durangoko udalbatzak erabakia hartu zuen momentua.

## Eskurik Esku berdintasunaren aldeko lasterketa, Durangon

Durangoko elkarteek eta herritarrek berdintasunaren aldeko korrikaldian parte hartu zuten Lilakrosean

### Erreportajea DURANGO

Durangoko elkarteek eta herritarrek, emakumeak buru, berdintasunaren aldeko korrikaldi erraldoian parte hartu zuten martxoan, Lilakrosean. Lekukoa eskurik esku pasatu eta askotariko mezuak aldarrikatu zituzten kalerik kale. Minbiziaren Aurkako Elkarteko Oihana Urrazak, Durango Rugby Taldeko Izaro Rementeriak eta Andereak elkarteak Isabel Iraurgik ere hantxik parte hartu zuten: ahizpatasunetik ahizpatasunera gizarte berdinzaleago baterako oinarriak josten.

Oihana Urrazak modu berezian bizi izan zuen korrikaldia. "Izan ere, aurtun baturiko dirua gure elkarteari emango zaio, bularreko minbiziaren aurkako ikerketarako", esan zuen. Izaro Rementeriak horrelako ekimenen garrantzia nabarmendu zuen: "Hainbeste



Urraza, Rementeria eta Iraurgi.

emakume helburu beraren alde batzeak indartsuago sentiarazten zaitu". Isabel Iraurgik, bestalde, berdintasun arrakalak ezabatzea denon lana dela gogoratu zuen: "Hau denon lana da, ez bakarrik talde batzuen edo mugimendu feministarena".



Joxemiel Barandiaran 8A,1C 48200 Durango  
94 681 44 95 - 618 068 747 650 397 007  
promotora@argolabe.eus

[www.promotoraargolabe.com](http://www.promotoraargolabe.com)



BROTXAKETAREN ETA  
IJEZKETAREN ALORREKO  
KIDE GLOBALA

[www.ekin.es](http://www.ekin.es)





Durangoko Pasiñoak hainbat kide, martxoan egindako entseguetariko batean.

# Durangoko Pasiñoak 30 urte bete ditu aurten

Belaunaldi banaketa betean heldu dira Durangoko Pasiñoaren 30. urteurrenara. Hartara, antzezlaneko paperik garrantzitsuenak gazteen esku egon dira aurten. Juan de Iciar elkarteko kideek martxoan hasi zituzten kaleko entseguak

## Rouhaifa Kassem errefuxiatu palestinarraren lanak, Berrizen

Palestinako kausa eta borroka transmititu gura dituen erakusketa Zaldibarren, Durangon eta Bilbon ere egin zen



Rouhaifa Kassem, Berrizko Kultur Etxean.

### Kultura BERRIZ

2023ko urrian, bizileku zuten Libano atzean utzi eta Rouhaifa Kassem artista eta bere familia palestinarra Euskal Herrira heldu ziren, Berrizera. Hile batzuk bertan pasatu ondoren, Bilbora lekualdatu dira aurten. Berrizen igarotako denboran margoturiko koadroekin erakusketa egin zuen Kultur Etxean.

Artistak azaldu zuenez, erakusketak mezu bat zuen: "Jendeak Ekialde Hurbilean zer gertatzen dabilen jakitea, batez ere Palestinan. Herritarrek bizi duten terrora, presoan egoera, tortura eta abar ere erakusten ditut. Gertatzen dabilena artista palestinarraren eskutik eza-gutzeko aukera da". Rouhaifa Kassemek Zaldibarren eta Bilbon ere egin zituen erakusketak martxoan zehar.

### Erreportajea DURANGO

Belaunaldi aldaketa betean etorri da aurten Durangoko Pasiñoaren 30. urteurrena, eta antzezlaneko paperik garrantzitsuenak gazteen esku egon dira. Juan de Iciar elkarteko kideek martxoan hasi zituzten kaleko entseguak, eta, eguraldiak eta orduak larregi lagundu ez arren, dozena bi lagun gogotsu batu ziren Santa Anako arkupearen bueltan. Haiekin elkar-tu zen ANBOTO, Pasiñoaren emanaldiei buruz berba egiteko.

Aurtengo ediziorako ez dute lan erraza izan paperak banatzeko. 1993an Durangoko Pasiñoa berreskuratu eta gero (1961. eta 1965. urteen bitartean ere antzeztu zen), "arriskuan" ikusi dute ekimenaren edizio hau. Halaxe azaldu zuten Maite Gonzalezek eta Itsasne Larrinagak. Larrinagak urteak daramatza Aste Santuko antzezlanean parte hartzen. Lagunen bitartez sartu zen bera; kuadrillako batek parte hartu ostean batu ziren bera, bere neba eta beste lagun bat. Hainbat urtean zenbait pertsonaia antzeztu du, eta aurten Herodesen neskamearena egin du, orain artean egin duen garrantzitsuenak. "Eta Pasiñoa aurrera eramateko beharrezkoa balitz, paper bi ere egingo nituzke", gaineratu zuen. Gonzalezek 11 urte daramatza Pasiñoan parte hartzen. Etxetik datorkio zaletasuna, amarengandik, eta urteetan zenbait

paper interpretatu du urte haue-tan guztietan.

### Parte hartzeko deia

"Urte hasieran publiko egin genuen geure larritasuna, jendea behar genuela ikusita. Martxoan hasi ditugu entseguak, eta ez dugu igarri jende berria etorri denik. Betikoak etorri dira. Agian, data gerturatu ahala jende gehiago animatuko da, baina ez dakigu", esan zuen Larrinagak. Gutxiene-ko kopurua beteta zuten arren, oraindino jende gehiago joateko deia egin zuten Larrinagak eta Gonzalezek.

Belaunaldi aldaketa betean hel-du da 30. urteurrenaren ospaki-zuna, eta, zailtasun dezente izan arren, ilusioz dabilta oztopo horiek gainditzen. "Beltz ikusten genuen, baina 30 urte egitearen ilusio horrek indarra eman digu aurrera egin eta jende gehiago lortzeko", esan zuen Gonzalezek. "Antzezlanean gazteok hartu ditugu paperik garrantzitsuenak, eta beste kontu batzuen ardura ere hartzen hasi gara. Familia moduko bat gara, eta hain ondo pasatzen dugunez datorren urtean ere egin gura izango dugu", gaineratu zuen

**"30 URTE EGITEAREN ILUSIOAK INDARRA EMAN DIGU AUERRERA EGIN ETA JENDE GEHIAGO LORTZEKO"**

## Elorriion mobilizazioak egin zituzten lan heriotza salatzeke

38 urteko behargin bat lan istripuan hil zen Betsaide enpresan; lantegiko makina batek harrapatu zuen

### Herririk herri ELORRIO

Martxoaren 4an lan istripu larria gertatu zen Elorrioko Betsaide enpresan. Ertzaintzaren iturrien esanetan, lantegiko makina

batek 38 urteko langile gizonez-ko bat harrapatu eta langilea bertan hil zen. Elorriion elkarretaratzeak egin zituzten lan heriotza salatzeke.



Argi Gorriak plataformak deituta, mobilizazioa egin zuten Elorriion.





*Bizkaia etorkizunera egokituta zainduz, inbertituz eta mantenduz.*



# Eider Garcia berriztarra, errugbiaren tontorrean

Eider Garcia Fuentes errugbilaria (Berriz, 2005) Durangaldeak goi mailako kirolean duen ordezkari nagusietarikoa da. Frantziako Lehenengo mailan jokatzen du, Lyongo Lou taldean. Gainera, Espainiako selekzioagaz Munduko Txapelketa jokatu du

## Kirola BERRIZ

Eider Garcia Fuentes errugbilaria (Berriz, 2005) Durangaldeak goi mailako kirolean duen ordezkari nagusietarikoa da, oso gaztea den arren. Durango Rugby Taldean hezi zen eta adinez nagusi izan aurretik Lehenengo Mailan jokatzen zuen, Eibar Rugby Taldeagaz. Azken urte biak Pirinioen beste aldean eman ditu, Frantziako liga nagusian, Lyongo Lou taldean. Apirilean Espainiako selekzio nagusiagaz debutatu zuen, Torreveijan (Valentzia), Brasilen kontrako partidua batean. Azkenengo 25 minutuetan jokatu zuen eta "sentsazio ona" izan zuela azaldu zuen. "Bagenekien partidua gogorra izango zena, brasildarrak jokalaririk handiak direlako. Partidua ondo hasi nuela esango nuke, urduri nengoen arren. Familia ere partidua ikustera etorri zen. Izan ere, aitarien senitartekoak Torreveijan bizi dira. Zelaia ezagutzen nuen, joan zen udan han entrenatu nintzen eta. Egia esanda, txikitatik Torreveijan igaro ditut udak", gogoratu zuen.

Debuta hasiera besterik ez zen izan. Apurka talde nagusian egonkortzen dabil eta abuztu amaieran Ingalaterran izandako munduko txapelketan parte har-



Eider Garcia, Espainiako selekzioeko elastikoa jantzita.

tu zuen. Irlandaren kontra, esaterako, 44 minutuan jokatu zuen. Espainiak ezin izan zuen taldekako ligaxka gainditu. Hala ere, munduko onenen kontra aritzea beste pauso bat izan zen Garciaen ibilbidean.

## Frantzian, bizimodu aldaketa

Euskal Herriatik irten eta Frantziara bizitzera joatea aldaketa handia izan zen bere bizitzan: etxetik kanpora, beste herrialde eta hizkuntza bat... Hasieran egoera berrira egokitzea kostatu egin zitzaioela esan zuen, bai-

na orain gustura dabilela. "Aldaketa handia izan zen. Erabakia hartu nuenean banekien gauzak aldatu egingo zirena. Baina ez nintzen kontziente zein punturaino aldatuko zitzaidan bizimodua eta zein punturaino aldaraziko ninduen ni neu. 18 urteagaz, bizimodu eroso batetik irten eta bakarrik bizitzera pasatu nintzen. Beste herrialde bat, beste kultura bat..., frantse-rik jakin barik, gainera. Errealitate dosi latza izan zen. Baina, aldi berean, esperientzia hau ondo etorri zait. Denbora hone-

tan pertsona legez asko hazi naizela sentitzen dut. Badakit edozein egoerari aurre egiteko kapaz naizena", azaldu zuen.

## Liga exigentea

Frantziako emakumezkoen errugbi liga nagusia Europako exigenteenetariko bat da. Maila handiko jokalaririk eta prestaketa fisiko eta taktiko handia duten taldeak biltzen ditu. Jokalaririk gazteentzat, Eider Garciaen modukoentzat, bertan lehiatzea etenik bako ikaskuntza da. Ligara egokitzea ere ez zen samurra izan, Garciak onartzen duenez. Honela gogoratzen du bere esperientzia: "Arlo honetan ere aldaketa ikaragarria izan da. Jokalaririk handiagoak dira hangoak, eta jokoa bera askoz ere arinagoa da. Dena da handiagoa eta azkarragoa. Hasi-erako entrenamenduetan, taldekideek magia egiten zutela sentitzen nuen. Horrelakorik ikusi bako- nintzen. Horrek jokalaririk legez hobetzer- a eraman ninduen. Han errugbia hemen futbolaren parekoa da. Lehiakortasun handiagoa dago. Lyonek futbol talde indartsua du, Olympique Lyonnais, baina, hala ere, emakume asko dabil errugbian".

Goi mailako liga den arren, jokalaririk gutxi bizi ei da errugbitik. "Errugbia beste lan batzuekin bateratzea da normale- na. Nire taldekide guztiak ikasten edo beste lan batean dabil- ta. Gure denborarik gehiena errugbiari eskaintzen diogula eta hortik diru apur bat datorkigula, horixe esan gura du 'profesional' izateak guretzat. Beste era bateko gauzak ere jasotzen ditugu: gimnasio onak, entrenatzaile onak... Eta bizitzako esperientzia", adierazi zuen.



Ainhua Urien.

## 'Ehun zaldi trostan', Urienen lan berria

## Kultura ABADIÑO

Ignacio Aldekoa literatur beka irabazi eta gero, Ainhua Urien idazle abadiñarrak 'Ehun zaldi trostan' ipuin sorta argitaratu du. 2020an *Poesia zaurien ukendu: Xabier Leteren arrastoan* saiakera idatzi eta gero, fikzioa baliatu du lan berrirako: "Bigarren liburu honetan, lehenengoan igarri zitekeen ahots propio horretan berretsi naizela esango nuke".

## HAPOak Atxondoko garapenaren ibilbidea zehazteko bidean da

## Herririk herri ATXONDO

Apirilean egindako ezohiko udalbatzarrean, Atxondoko Udalak hasierako onarpena eman zion Hiri Antolamendurako Plan Orokorrari (HAPO). Proposamenak EH Bilduren (gobernu taldea) aldeko botoekin eta EAJren abstentzioagaz aurrera egin zuen.

Behin hasierako onarpena eginda, herritarrek alegazioetarako epea izan dute.

HAPOak udalerriko garapenaren ibilbidea zehaztuko du datozen urteetarako, hala nola lurzorua antolamenduan eta eraikigarritasunean.

**Smurfit Westrock**  
Central Forestal

**+55 urte Euskadiko pinudiak zaintzen**

**Smurfit Westrock**  
Nervión

**Etorkizun hobe baterako enbalaje iraunkorrak**



# Nesken talde berria kadete eta junior mailan

Durangaldeko Bizikleta Eskolak eta Punta Galea klubak indarra batu dute kadete eta junior mailan, adin tarte horretako nesken talde berri bat sortzeko: Occident Durangaldeko Bizikleta Eskola. Taldearen aurkezpena apirilean egin zuten

**Kirola** DURANGALDEA

Urteroko ohiturari eutsita, Duranguesa Txirrindularitza Elkar-teak eta Durangaldeko Bizikleta Eskolak aurtengo taldeen aurkezpena egin zuten apirilean, eta denboraldi berriari begirako helburuak eta desioak plazaratu zituzten.

Talde guztiak kontuan hartuta, 100 bat txirrindulari aurkeztu zituzten. Umeetatik haur kategoriarara arteko bizikleta eskolagaz hasi zuten aurkezpena. Mutiletan Café Dromedario Flotamet da hurrengo urratsa, kadeteetan eta gazteetan. Nesketan hutsune bat zegoen adin tarte horretan eta, hain zuzen ere, hortxe egon da



Bizikleta eskolako kideen talde argazkia.

aurtengo nobedade nagusia. Durangaldeko Bizikleta Eskolak eta Punta Galea klubak indarra batu

dute adin tarte horretako nesken talde berri bat sortzeko: Occident Durangaldeko Bizikleta Eskola.



Maialen Bideguren.


## "Musturren aurretik pasatu arren, autobusa ez da geratzen"

Sinadura bilketa egin zuten Abadiñon, Elorriotik Bilbora doan A3929 autobusa astean zehar bertan gelditzeko

**Herririk herri** ABADIÑO

Hainbat dira Muntzaratzetik pasatzen diren autobusak, baina horietariko batek, nahiz eta autobus geltoki aurretik pasatu, ez du geldialdirik egiten astean zehar. A3929 lineako autobusa da, Elorriotik Bilbora doana. Egoera horren aurrean, Maialen

Bideguren abadiñarrak sinadura bilketa hasi zuen. "A3929 lineako autobusak astean zehar ez du geldialdirik egiten Muntzaratzen, nahiz eta gure musturren aurretik pasatu. Zelaletako autobus geltokiraino joan behar izaten dugu autobusa hartzera", esan zuen.



ZALDIBAR ELIZATEKO UDALA  
Tel.: 946 827 016  
www.zaldibar.eus





# "Oso pozgarria da Iturri- aititaren lanak egotea"

Manuel Moreno San Romanen 100 bat lan egon dira ikusgai aurten Elorrioko Iturri kultur etxean. Lan hauek garai bateko Elorrio zelakoa zen erakusten dute. Artistaren familia pozik agertu zen erakusketak herrian izandako harreragaz

## Erreportajea ELORRIO

Manuel Moreno San Roman artistaren (1893-1969) hainbat lan egon da ikusgai aurten Elorrioko Iturri Kultur Etxean, familiak utzita. Margolari eta eskultoreak XX. mendeerdialdean sorturiko obrak egon dira ikusgai. Manuel Moreno artista polifazetikoak zen. Barakaldon jaio zen, eta, koadroak margotzeaz gainera, eskulturak, urregintza eta galvanoplastia ere jorrazten zituen. "Barakaldon jaio zen, eta, gero, Elorriora ezkondu zen. Arte Ederren eskolako ikaslea zela ezagutu zuen amama, Alejandra Garaizabal, eta gero ezkondu egin ziren. Elorriori bizi izan ziren", azaldu zuen artistaren familiak.



Manuel Moreno San Romanen familiartekoak.

Guztira, 100 bat lan egon dira ikusgai kultur etxean, eta lanek garai bateko Elorrio zelakoa zen ikusteko aukera ematen zuten. Moreno Garaizabal familiako Rosa Mari, Manolo eta Lourdes neba-arrebak pozik agertu ziren aitita Manuelen lanak Elorrioko Iturri kultur etxean ikusita. Makina bat elorriar joan zen kulturgunera lanak ikusteko eta artistari buruz gehiago jakiteko asmoz. Familiak azpimarratu zuen lanak urte luzez egon direla gordeta, eta erakusketa beste leku batera eramatea ere gustatuko litzaiekeela. "Kutxa batean sartuta eta ondo gordeta egon dira hainbat urtean, baina ez genekien non zeuden, agertu diren arte! Maleta batean kiribilduta topatu ditugu beste batzuk. Denbora luzean egon dira gordeta, eta sitsak janda ere egon dira batzuk! Manolok lan dezente izan du horiek konpontzen", esan zuen Lourdesek. "Orain Bilbora eramatea gustatuko litzaiguke, baina Arte Ederren museoan obretan daudenez, ez dugu uste luzaroan ezer egin ahal izango dugunik. Amamaren eta aititaren erretratuak han uztea gustatuko litzaiguke", gaineratu zuen Manuelek.



Iker Galarza.

## Gure Zirkuak Zornotza bisitatu du

### Kultura ZORNOTZA

Euskal Herriko zirku konpainia entzutetsuak zortzigarren edizioa bete du aurten eta ibilbide horretan Zornotza bisitatu du. Iker Galarza pozik agertu zen zirkuak Zornotzan izan zuen harreragaz. "Hasieran hiru aserako etorri ginen, baina zirkuak interes handia piztu duenez luzatu egin dugu egonaldia", azaldu zuen.

**BERRIZKO UDALA**  
[www.berriz.eus](http://www.berriz.eus)  
 946 824 036  
 946 824 584  
[berriz@berriz.eus](mailto:berriz@berriz.eus)

*Euskaraz eta berdintasunean  
bizi egunez egun!*



## Durango Paradorea zabaltzea onartu dute

Durango PPko zinegotziak Paradorea ipintzeko proposamena egin zuen. Senatuak onartu egin du

**Herririk herri** DURANGO

Carlos García Durango PPko zinegotziak Durango Udalean aurkezturiko proposamena Senatura heldu zen apirilean. Durango Paradorea izatea helburu duen ekimenak baieztatu jaso zuen, PPren eta EAJren babesagaz.

## "Bide indarkeriaren kontagailua zeroan mantendu behar dugu"

Rosa Trinidad Stop Bide Indarkeria elkarteko presidentea trafiko istripuen kontrako ahotsik entzutesuenetarikoa da

**Erreportajea** DURANGO

Sareten egitasmoaren atal berria, ANBOTO Stop Bide Indarkeria elkarteko presidentea eta istripuen kontrako aktibista ezauna den Rosa Trinidad egaz batu zen. Trinidadek 20 bat urte darabatzat trafiko arduratsuz kontzientziatzeko lanetan, eta ez du bazterrerik egiteko asmorik. Trinidad Enaitz semearekin gertatutakoaren harira hasi zen militatzen, berak bizitako samina eta injustizia beste inork sentitu ez ditzan.

Datuek diote trafiko istripuek behera egin dutela 20 urtean, eta

Trinidadek "egokitzen" jo zuen joera hori. "Joera egokia da, baina ezin dugu horregaz konformatu. 2024an 37 lagun hil ziren Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako errepideetan. 37 hildako dira eta betiko apurtuta geraturiko 37 familia daude horien atzean. Gainera, ziur nago heriotza horietariko ugari ekidin egin zitekeela", adierazi zuen Trinidad.

Bestalde, Stop Bide Indarkeria elkarteko presidentek kontzeptu bi bereizi zituen: istripuak eta bide indarkeria. "Istripu bat kontrolatzea ezinezkoa den zer-



Rosa Trinidad Stop Bide Indarkeria elkarteko presidentea.

baitek, saihestu ezina den zerbaitek, eragindakoa izaten da. Gatz da kasu horien kontra borrokatzea, eta ezinezkoa litzateke kontagailua zeroan mantentzea. Baina bide indarkeriari dagokionez, bai, eta lan egin behar

dugu kontagailua zeroan mantentzeko. Izan ere, bide indarkeria jokabide ardurabakoek eta horien eraginez sortzen diren egoera eta heriotzek osaturiko multzoa da", gehitu zuen Trinidad.

## Txanbolin elkarteko txistulariak txosnaguneko txupinero

Txanbolin kideek urteak daramatzate herriko jaiak girotzen. Aurten txosnaguneko suzuria jaurti dute San Prudentzio jaietan



Miriam Uribe, Josu Arkarazo, Xabier Iturriagaetxebarria eta Sugar Perez.

**Gehigarria** ABADIÑO

Hamarkadetan zehar, kalejiretan kilometro mordo egingakoak dira Txanbolin txistulari taldeko kideak, eta hauei eskertza egin guran, San Prudentzio jaietako txosna batzordeak txupinazoa botatzeko aukera eskaini zien. Taldekideek pozik hartu zuten gonbidapena. Estatutuen arabera taldea 1993an sortu bazen ere, herriko txistulariek ia mende erdi daramate San Prudentzioetan kalejira egiten. "Jai hauek egiten hasi zirenean hasi ginen kalejiran irteten, nik soldadutza egin ostean gutxi gorabehera, 1977aren bueltan. Urteko lehenengo jaiak ziren hemen inguruan eta arrakasta itzela zuten. Bost-sei kalejira-edo egingo genituen", azaldu zuen Josu Arkarazo beterranoak.

## Correosen okupazioagaz epaitutakoak, absolbituta

Kaletik Gaztetxera dinamikaren esanetan, epaileak "froga faltagaitik" absolbitu zituen lau gazteak

**Herririk herri** DURANGO

Apirilaren 3an Durango lau gazte epaitu zituzten Correosen bulegoa izandako eraikineko okupazioagaz lotuta. Iazko abenduaren 6ko gertakarien harira epaitu zituzten lau gazteak, egun hartan postetxe zaharrean sartu, bertan gaztetxea atondu eta horregaz guztiagaz "usurpazio delitua" egin zutelakoan.

Hile batzuk geroago izan zen epaiketa, eta, Kaletik Gaztetxera dinamikako kideen esanetan, egunean bertan kaleratu zen auzibidearen epaia: lau gazteak

absolbitu egin zituzten, "froga faltagaitik".

Epaiketa egunean, goizean goiz, gazte ugari batu zen epaitegiaren aurrean, auzipetutako lau kideei babes adierazteko eta gaztetxearen aldeko aldarriak kaleratzeko. "Asanbladak babes handia jaso du, ikasleen eta inguruko asanbladen partetik, batez ere", gaineratu zuten Kaletik Gaztetxera dinamikakoek. Hori dela eta, eskerrak eman zizkieten joan ziren denei, baita Defentsa Komunitateari ere.

**TXINTXIRRI ELORRIKO IKASTOLA**

San Pio, 3  
ELORRIO  
Tel.: 946 582 261  
elorrio@ikastola.eus  
elorrikoikastola.eus

**ORAIN DOAN**

**ERROETATIK, ORRI BERRIETARA**  
ATEAK ZABAIK DITUZUE, ETORRI ETA EZAGUTU GAITZAZUE!

**IKASTOLAK**



# Euskaraldiak hizkuntza bultzatzera deitu du

Maiatzaren 15etik 25era Euskaraldia egin zen Euskal Herriko luze-zabalean, laugarrenez. Durangaldeko herrietan hamaikakoak aurkeztu zituzten eta milaka herritarrek parte hartu zuten, txapa paparrean. Durangon, 2.200 pertaide izan ziren

## Herririk Herri DURANGO

"Entzun, gure bihotzaren taupadak euskaraz dira!" dio Bulego taldeak Euskaraldirako beren-beregi konposaturiko kantak, eta halantzik ailegatu zen maiatzaren erdialdean, taupadak barik, euskarazko elkarrizketak hauspotzeko eta entzuteko sasoia. "Oraintxe da euskararen erabileran jauzia emateko eta batzeko tenorea, denok batera eraginda euskara gehiago entzungo delako gure kaleetan", adierazi zuen Euskaraldiko koordinazio orokorreko Jon Kobeaga kideak, ariketa hasi baino lehenago. Euskararen erabileran eragiteko "orain-oraingoz daukagun tresnarik indartsuena" legez definitu zuen Euskaraldia. Halantzik, maiatzaren 15etik 25erako hamaika egunetan, milaka izan ziren Euskaraldia-gaz bat egin zuten Durangaldeko herritarrek.

Durangoko batzordeak datu kualitatiboen balantze positiboa egin zuen ariketa amaitu eta gero, Euskaraldiak "inoizko mugimendurik handiena" sortu zuen-eta udalerrian. Izan ere, egitasmoari eskerrak "aurkezpenak, hartu-emanak eta foroak" sortu ziren, eta horiek guztiek herritar kopuru handia aktibatzea ekarri zuten. "Berba gutxi-



Euskaraldiaren hasiera ekitaldia, Durangon.

tan, euskaltzaleen mugimendu indartsua sortu da", esan zuten. Era berean, Euskaraldiari eskerrak egitarau oparoa antolatu zela azpimarratu zuten batzordekideek: "Aurkezpenak, solasaldiak, musika eskaintza, jolasak, mintzodromoak... Eskaintza askotarikoa izan da eta horrek profil askoko ehunka herritarrek Euskaraldiko ekintzetan parte hartzea ahalbidetu du". Ondorio kualitatiboen azken ezaugarria euskarak "presentzia urria" duen eremuetan egindako aurrerapausoak izan ziren:

"Askok esan digute Euskaraldia dela euren entitateetan euskararen murgiltzeko duten tresna bakanetarikoa. Aurrerapen txikiak dira askotan, baina balio handikoak", adierazi zuten egitasmo moko talde eragileko kideek.

**"EDIZIO INDARTSUAGO BAT IRUDIKATZEARI EHINGO DIOGU UDAZKENEAN", ESAN ZUEN TAUPAK**

## Zenbakitan

Datu kuantifikagarriei dagokie-nez, Euskal Herri osoan legez Durangon ere izen emate kopurua jaitsi egin zela azpimarratu zuten: "% 9,91ko jaitsiera egon da izen emateetan, azken edizioagaz (2022koagaz) alderatuta". Hala ere, jaitsiera hori apalagoa izan zen Euskal Herriko batez bestekoagaz alderatuta, inskripzioak % 14,5 jaitsi ziren-eta oro har zazpi herrialdeetan. Era berean, ariketa erraldoian izenik eman ez arren, batzuk txapa aldean ipinita ibili zirela esan zuen Durangoko Euskaraldiak; besteak beste, "izena aurreko edizioetan eman zuten oraingoan eman ez dutelako" edo "txapa izena eman aurretik eskuratu zutelako".

## Jarraitzeko deia

Euskaraldia amaitu zen arren, hizkuntza ohiturak aldatzeko lanean jarraitzea deitu zuen Durangoko batzordeak. Hori, "neurri batean", ahalegin indibiduala dela esan zuten, baina zeregin hori era kolektiboan egitea "errazagoa" dela ere igarri zuten. Hori horrela, euskararen alde eta euskara bultzatzeko mota guztietako egitasmoetan parte hartzen jarraitzeko deia egin zuten, "herritarren mugimenduak euskaldunduko duelako Durango". Horren harira, Taupa euskaltzaleen mugimenduak edizio berria prestatzen dabilzala jakinarazi zuen: "Gogoetak jasotzen ari gara eta ebaluazio zorrotza egingo dugu. Horregaz guztiagaz ikasi eta edizio berri indartsuago baten irudikapenari ekingo diogu udazkenean. Zaldikoaren hurrengo galopa heldu bitartean, inurri lana egitea dagokigu orain", esan zuten Jasone Mendizabal eta Oskar Zapata taupakideek.



Ion Sarasua.

## Ion Sarasua, mendi bizikletako hautatzaile

Abadiñarrak ziklista gazteak mendi bizikletara hurreratzeko erronkagaz hasi zuen ibilbidea

## Kirola ABADIÑO

Ion Sarasuak Euskadiko mendi bizikleta arloko hautatzaile izateko erronka hartu zuen ekainean. Buelta asko eman zizkion Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren eskaintzari, baina baiezkoa eman zuen azkenean, besteak beste, ziklista gazteak mendi bizikletara erakartzeko asmoz. "Ziklistek mendi bizikleta apustu erakargarri legez ikusteko lan egin behar dugu", esan zuen. Baina kalitatezko txirrindulariak izateko, kanti-tatea sortzea berebizikotzat jo zuen abadiñarrak. Era berean, euskal selekzioa bultzatzeko asmoa ere iragarri zuen.



MALLABIKO UDALA  
Tel.: 943 171 461  
www.mallabia.eus





## Azpiegituren prezioa berdintzeko eskaria Iurretatik Durangora

"Ez da bidezkoa Durangon erroldatuta ez daudenek tarifa desberdinak ordaintzea", esan zuten EAJk eta EH Bilduk

**Herririk Herri** IURRETA

Durangon erroldatu bakoek durangarrek baino tarifa handiagoak ordaindu izan dituzte kirol eta kultur azpiegitura eurak erabiltzeko; iurretarek, adibidez. Hori dela eta, Iurretako Udalak prezioak berdintzea eskatuko zion Durangoko Udalari maiatzeko osoko bilkuran. EH Bilduk aurkeztu zuen horretarako mozioa, eta eskariagaz bat egin zuen EAJk. Espainiako Auzitegi Gorenak 2023ko epai batean jasotakoa izan zuten horretarako oinarri. Ebazpenaren arabera, udal batek ezin

du alde kuantitatiborik ezarri udalaren kirol instalazioak erabiltzeagaitiko tasan, erabiltzaileak udalerrian erroldatuta dauden ala ez kontuan hartuta. Jeltzaleek eta subiranistek iurretarren kezka hori helarazi zioten Durangoko Udalari. Orain arte, sobran ordaindutako dirua berreskuratut dute iurretarek, udalak emandako diru laguntzari eskerrak. Aurten, oster, udalak laguntza eten du, Gorenaren epaia tarteko. Horrek ardura sortu du herrian. Iurretar batzuk, adibidez, sinadurak batzen hasi ziren.



Maiatzeko osoko bilkura Iurretako udaletxean.

## 49 urteko behargin bat hil da Atxondon, AHTko lanetan

**Herririk Herri** ATXONDO

Maiatzaren 26an behargin bat hil zen Atxondon, Abiadura Handiko Trena egiteko lanetan zebilela. LABek salatu zuenez, "pieza baten erorketak zauri larriak" eragin zizkion langileari, eta "odolustu-ta" hil zen. Sindikatuak jakinarazi zuen behargina Conprovincial enpresa azpikontratatuarentzat lanean zebilela. Maiatzeko aste hartan lau behargin hil ziren Euskal Herrian beharrean zebiltzala. Bana Andosillan (Nafarroa) eta Atxondon maiatzaren 26an, beste bat Amurrión (Araba) maiatzaren 27an, eta azkena Bilbon maiatzaren 29an. Heriotzok prebentzioagaz ekidin zitezkeela kritikatu zuen LABek.

## Gaixotasun arraroen ikerketa bultzatzeko kanpaina Durangon

**Herririk Herri** DURANGO

Durango familia batek kanpaina bat hasi zuen maiatzean, dirua batzeko gaixotasun arraroen ikerketetarako.

Lau urteko Jon semearen gaixotasunak bultzatu zituen bere gurasoek kanpaina hastera. Semeak ez du diagnostikorik, baina badakite ASTN1 genearen mutazio bat duela; hau da, gaixotasun arraro bat duela. Hori horrela, gurasoek "ikerkuntzarako dirua ematera" animatu zituzten herritarrak bideo batean. "Zientzia da gure esperantza", adierazi zuten bertan.

Ekarpenak [elviajedenica.org](http://elviajedenica.org) atarian egin daitezke.

## Atxondon kimu berriak ernaldu dira esku pilota bultzatzeko

Udalak eta Bizkaiko Pilota Federazioak akordioa sinatu dute. 16 neska-mutiko dabilta pilotan herrian

**Herririk Herri** ATXONDO

Atxondoko Udalak eta Bizkaiko Pilota Federazioak hitzarmen bat sinatu zuten herrian pilota bultzatu eta berrindartzeko. Atxondon tradizio handia izandako kirola indarra galtzen joan da apurka, eta akordio horregaz lehenengo harria ipini zuten joera biziberritzeko. "Pilota herriko bizitzaren parte izan da urte askoan eta hori berreskuratu gura dugu", adierazi zuen Eneritz Agirre alkatea. Etxeko pilotari baten aldeko apustua egin dute umeak en-

trenatzeko. Josu Eguren pilotari atxondarrak hartu zuen ardura hori. Gogotsu heldu zion erronkari. "Ni Atxondoko pilotalekuan hazi eta hezi nintzen pilotari lez. Orduan, neuk ikasitakoa orain umeei erakusteko aukera izateak ilusio handia egiten dit", esan zuen.

Egitasmoak harrera polita izan zuen. Lehenengo egunetan, 4tik 13 urtera arteko 16 neska-mutil inguru hasi ziren pilotan, denak atxondarrak, eta saioaren batean 20 baino gehiago ere bildu ziren. Martitzen eta bariku arratsal-



Jon Aranburu zinegotzia, Jon Eguren entrenatzailea, Eneritz Agirre alkatea eta pilotariak.

deetan entrenatzen dira, Apatako pilotalekuan. "Gaztetxoak berriro frontoian gozatzen ikus-tea da proiektu honen arrakastarik handiena", nabarmendu zuen Jon Aranburu udaleko zinegotziak.

Egitasmoa behar den moduan sendotzeko, pilota goxoa txapelketa ere antolatu zuten. Datorren urtera begira, garai bateko Atxondoko Pilota Eskola martxan ipini gura dute berriro.



**DURANGALDEA  
ERAIKITZEN  
DAUEN  
TXINPARTA**



Eitua industrialdea 60, BERRIZ, Bizkaia  
Tel.: 34 94 682 41 75 [even@even.es](mailto:even@even.es)



# Izarok merezitako moduan agurtu du 'Cerodenero'

Izaro Andres artista mallabitarrak BECen amaitu zuen bira, milaka zaleren aurrean eta hainbat lagun musikarigaz. Diskoaren bira osoa "zoragarria" izan zela aitortu zuen Andresek. Aurrerantzean lanean jarraituko du, fokuetatik aldenduta oraingoz



Izaro Andres.

## Kultura MALLABIA

"Inflexio puntua" eta disko "sendagarria". Halakoxea izan da *Cerodenero* Izaro Andres musikari mallabitarrentzat: "Auto-justizia disko bat, neure lekuan ipini nauena, oinez irakatsi izan balit legez eta orain bakarrik nabil", azaldu zuen maiatzaren amaieran egindako elkarrizketan. Andresek 2023an kaleratu zuen *Cerodenero*, bere bosgarren diskoa, eta urte eta erdiz ibili zen batetik bestera etxean zein atzerrian emanaldiak egiten. Biran zehar, bera eta bere lantaldea "oso zoriontsu" izan zirela esan zuen: "Askok bidaiatu dugu, nazioarteko biran ibili gara, eta oso zortedun sentitzen gara. Zortedun lan egin dezakegulako, gure talentua landu dezakegulako eta musikan zuzenekoak duen magia hori bizi dezakegulako. Osasuntsu gaude", esan zion hedabide honi.

Eta behin han-hemenka emanaldiak egiten ibili eta gero, Izarok Barakaldoko BEC erraldoia hautatu zuen bere zaleen aurrean bira behar den moduan amaitzeko. Maiatzaren 31n eman zuen kontzertua, Baiuca, Olatz Salvador, Valeria Castro, Miki Nuñez eta Olaia Inziarte musikariak lagun, besteak beste. Ikuskizun berezi haren atzean "lan handia" zegoela nabarmendu zuen: "Jende askoren lana antolatatu behar da, eta bertigo handia ematen du, gastuak hor daudelako eta sekula ez dakizulako zein sarrera kopuru salduko den". Bestalde,

kontzertu erraldoien tentsioa "oholtzarako izaeraren beste alderdi bat" esploratzeko baliagarria zela adierazi zuen: "Niretzat opari bat da nire alderdi ezberdin horiek aktibatu ahal izatea".

Edozelan ere, eginkizun nagusia *Cerodenero* zuzenean eskaintzea izan zuen arren, Izarok *Perlak* lana ere kaleratu zuen. "*Cerodenero* diskoaren mendi jaitsieran" idatzi zituen abesti horiek, "kolpean" sartu zitzaion-eta jendeari kantak idazteko gogoia.

## Isilik baina ez geldirik

Bosgarren diskoko lanak behar den moduan beteta, Izaro Andresek atsedenerako tartetxo bat hartu zuen, baina aurrerantzean zeozer berria etorriko den jakitun. "Geroa egotea gura badut, etenaldiak behar ditut tarte bien artean. Kezka sortzen dit, jakina, ea bueltan jendeak besoak zabalik hartuko gaituen berriro, eta gu zelan egongo garen. Baina geldialdirik barik ez dago erritmorik. Beraz, ez dago beste aukera errealik gaur-gaurkoz. Jakina, etenaldia oholtzetan izango da, baina lanaren erritmoak aurrera jarraitzen du", esan zuen.

## "AUTO-JUSTIZIA DISKOA IZAN DA, INFLEXIO-PUNTUA, NEURE LEKUAN IPINI NAUENA"

## Sinadurak, pentsioak gutxieneko soldatagaz parekatu daitezzen

Pentsiodunek Herri Ekinaldi Legegilea erregistratu dute Legebiltzarrean. 7.000 sinadura batu dituzte eskualdean



Durangaldeko pentsioen mugimenduko ordezkariak.

## Herririk Herri DURANGALDEA

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak Herri Ekinaldi Legegilea erregistratu zuen Eusko Legebiltzarrean, pentsioak gutxieneko soldatagaz parekatu daitezela eskatzeko. 7.000 sinadura baino gehiago batu zituzten Durangaldeko herrietan, eta, guztira, 145.000 baino gehiago Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Horiek guzti horiek Eusko Legebiltzarrera eraman zituzten, gaia eztabaidatu eta pentsioak gutxieneko soldatagaz parekatu daitezzen eskatzeko ordezkari politikoei. Azaldu zuten, Euskadiko "100.000 herritarren pentsioa gutxienekoaren azpitik" dago eta proposamen horregaz "pertsonei duintasuna ematea" dute helburu. Herri ekimen legegilea Legebiltzarrera heldu zenean atzera bota zuten.

## Garaiko umeek euren ortu propioa inauguratu dute

Kalabaza eta krispetatarako arto garaunak ereinda hasi zituzten lanak. Txorimalo polit-polita ere egin zuten

## Herririk Herri GARAI

Trumoitte kultur elkarteko ki-deek egitasmo berri bat hasi zuten maiatzean: herriko umeentzat ortua atondu zuten. Herri-gunean ipini zuten, atxikitako etxeen atzealdeko eremuan, eta Ana De la Maza ekoizle garaitarraren azalpenekin inauguratu zuten eremu berria. Ereindako lehenengo ortuariak kalabaza eta krispetatarako artoa izan ziren. Txorimaloa ere egin zuten: 'Babarrun'. Aurrerantzean, umeek izango dute ortua zaintzeko ardura.



Inaugurazio eguna. TRUMOITTE





Durangaldeko  
Mankomunitatea  
Mancomunidad  
de Durangaldea

# Etorkizuna Ondarea Natura Euskera

[www.dma.eus](http://www.dma.eus)





The Brass Funkeys taldea. ZORNOTZAKO UDALA

# The Brass Funkeys, Haizetarako irabazle

Musika jaialdiko sari nagusia Erresuma Batuko taldeak eskuratu zuen. Iruñeko Goxo taldeak publikoaren saria jaso zuen, eta Quentin Longepek instrumentistari onenarena. SDaren urteurrenari loturiko saria Undertow Bass Bandek eskuratu zuen

## Kultura ZORNOTZA

Haizetara, Zornotzako Kaleko Fanfarreen, Banden eta Musikaren Nazioarteko Lehiaketaren hemezortzigarren edizioa antolatu zuten ekainean. Zornotzako kaleak asteburu batez musikal baten eszenatoki bihurtu ziren. Parte hartu zuten taldeek, zortzi guztira, euren onena eman zuten hiru sarietarik bat irabazteko helburuagaz. "Lehiaketa benetan arrakastatsua izan zen; bisitari ugari erakarri eta udalerrri osoan jai giro alai sortu zuen", azaldu zuten antolatzaileek prentsa oharrean. Beste era batera esanda, zornotzarrak eta kanpotik joandako bisitariak pozarren

geratu zirela beste urte batez kaleko musikak sorturiko giroagaz.

## Bandarik onenaren saria

Ainara Ortega presidenteak, Jou Gonzalez musikari zornotzarrak eta Afrika Bibang abeslariak osaturiko epaimahaiak XVII. edizioko irabazlea The Brass Funkeys banda izatea erabaki zuen. Erresuma Batuko bandak 15.000 euroko saria eraman zuen etxera.

## Publikoaren saria

Bestalde, publikoaren saria Iruñeko Goxo Txaranga taldeak irabazi zuen, herri-bozketa baten bitartez erabakita. Haizetara

webgunearen bitartez, 498 lagunek eman zuten botoa irabazlea aukeratzeko. Taldeak 4.000 euroko saria jaso zuen.

## Instrumentistarik onena

Haizetara jaialdiaren edizio honetako instrumentistarik onena epaimahaiak aukeratu zuen. Suck Da Head taldeko tronboi-jotzaileak irabazi zuen, Quentin Longepek. 1.000 euro jaso zituen.

Edizio honetan, laugarren sari gehigarri bat egon zen, SDaren 100. urteurrenaren harira. Hala, 'Aupa gazteak - Bertsio onena' izenburupean, Undertow Bass Band taldea izan zen garailea. Honek ere 1.000 euroko saria eskuratu zuen.



Jeyxi Spaguetti da Juan Carlos Rodriguezen alter egoa. EDUARDO ZAMANILLO

# Juan Carlos Rodriguez gustura Bilboko LGBT giro gautxorian

Durangarrak ia 30 urte daramatza Las Fellini talde transformistan Jeyxi Spaguettiren rola jokatzeko

## Erreportajea DURANGO

Gutxi izango dira Bilboko girorik gautxorienean Las Fellini transformismo taldea ezagutzen ez dutenak, baina beharbada gutxi jakingo dute taldekideetarik bat durangarra dela. Juan Carlos Rodriguez Legido (Durango, 1980) 1998an taularatu zen lehenengoz gainerako 'Felliniekin'. Urteen poderioz, bizi propioa eman dio Jeyxi Spaguetti pertsonaiari, eta zenbatu ezinak dira taldekideekin batera han-hemenka egin dituen ikuskizunak. "Urteetan pertsonaia barneratzen eta garatzen

joan naiz, eta eroso sentitzen naiz beragaz. Drag giroan asko ikasten da, zaren horri buruzko kontzientzia hartzen duzu eta denak ez duela balio ikasten duzu", esan zuen Rodriguezek.

Gustura dabil dantza, kabaret eta umore artean, ikuskizunetara joandako ikusleak zirikatzen eta LGBT eskubideak lau haizetara aldarrikatzen. "Momentu honetan ez gaude orain urte batzuk bezain libre. Atzera egin dugula uste dut. Ekainaren 28koak babesten jarraituko nuke. Batu gaitezen eta aldarrikatzen jarraitu dezagun", esan zuen.

# Zubitegi erreka eta inguruak berreskuratzen Mallabian

Lurpeko kanala kendu eta erreken ezker aldeko ingurua egokitu dute, biodibertsitateari mesede egiteko

## Herririk Herri MALLABIA

Ibilgu berria ur geraldiei aurre egiteko gai dela egiaztatu eta gero, eta lurpeko kanala beharrezkoa ez dela ikusita, ingurunea berreskuratzeko lanak egin zituzten Mallabiko Zubitegi errekan. Lur azpiko galeria bota zuten, eta erreken ezker aldeko ingurumen-irizpideen arabera berreskuratu. Jarduketa horrek biodibertsitateari eta garapen jasangarriari mesede egingo ziela esan zuen Mallabiko Udalak. Bigarren faseko lanetarako 192.406 euro erabili zituzten.



Obrak Zubitegi errekan. UDALA

# Zulaika SDAko entrenatzaile

Amorebietarentzat urte gazi-goza izan da. Mendeurrenako ospakizunetan murgilduta, lehen taldea Bigarren RFEF Mailara jaitsi zen. Klubak ekainean Natxo Gonzalez kargutik kendu eta Aitor Zulaika Aranguren ipini zuen entrenatzaile. Esperientzia handiko entrenatzailea da; Real Sporting de Gijoneko bigarren taldea zuzendu zuen.



SDA



Izurtzako plaza berrizteko proiektua, onartuta

**Herririk Herri** IZURTZA  
Izurtzako udalbatzak herriko plaza berrizteko proiektua onartu zuen ekainean. Herriko gunerik erabiliena izanik, etorkizuneko plazak hainbat osagai izango du: gune zabal bat, umeentzako ur txorrotak eta estalki nagusi bat eserlekuekin. Horrez gainera, umeen jolasgunea tabernaren ondora lekualdatzea aurreikusi dute.



Proiektuaren infografia. IZURTZAKO UDALA

**Kirola** ZORNOTZA  
Oier Luengok ez du berehalakoan ahaztuko Real Oviedon osatu duen hirugarren denboraldia. 2003an, arazo ekonomiko larriak eraginda, taldea Hirugarren Mailara jaitsi zen, eta 24 urte behar izan ditu elitara bueltatzeko. Luengo lorpen historiko horren parte izan da. "Ez dakit hau den nire urterik onena, baina denboraldi honegaz geratzen naiz, bizitako denagaitik. Ez dakit berriro horrelakorik bizi izango dudana", adierazi zuen igoera ospatu berrian. Lorpena behar den moduan ospatu zuen, une gogoangarri hura bikotekideagaz, familiagaz eta lagunekin partekatuta. Zornotzarrak 2027ra arteko kontratua du sinatuta Oviedogaz, eta, horrenbestez, Asturiasko lurretan jarraituko du, "gozatzen". "Hemen jarraituko dut, klub historiko honegaz gozatzen. Gainera, kasualitatez, datorren denboraldian klubaren mendeurrena da. Patuak hala gura izan duela ematen du", esan zuen Luengok. Era berean, bere udalerriko SD Amorebieta futbol taldea gogoan izan zuen. Haren "nortasun borrokalaria" nabarmendu zuen.

Oier Luengo, Lehen Mailara Oviedogaz

Futbol jokalaria zornotzarrak historia egin du Asturiasko Real Oviedo taldean. Kluba futboleko Lehen Mailara bueltatu da handik kanpora 24 urtean egon eta gero. Luengok esan zuen "sekulako sentrazioa" izan zela Oviedoko zaleei poz hori ematea



Oier Luengok laugarren denboraldia hasi du Oviedogaz. REAL OVIEDO

**GU BABESTEKO SORTU ZEN LANBIDEA**

Bisita Gidatuak · Tailerrak · Apartamentuak · Ekitaldiak

San Agustin Auzoa 50 48230 Elorrio · Bizkaia  
634 73 52 92 /info@solatsu.com  
[www.solatsu.com](http://www.solatsu.com)



# Eskualdeko kultur sarea: bizia, baina asimetrikoa

Eusko Jaurlaritzaren Kulturklik atariaren esanetan, iaz 758 kultur ekitaldi antolatu ziren Durangaldean; hau da, jardunaldi bi egun bakoitzeko. Hala ere, uzta emankor horren atzean errealitate konplexua dago: kultura ez da berdin ailegatzen herri guztietara



Tio Teronen Semeak taldearen ikuskizun bat, Mañariko frontoian. MAÑARIKO UDALA

## Herririk Herri DURANGALDEA

Tokikom taldeko hedabideek eta ETBk Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako kultur ekitaldiei erreparatu zieten ekainean, Saretzen egitasmoaren atal berrian. Azterlanak azaleratu zuenez, hiru herrialdeek kultur programazio bizia dute oro har, baina asimetrikoa hiriburuak eta biztanleria gutxiagoko eremuak alderatuz gero. Izan ere, ekitaldirik gehienak hiru hiriburuetan pilatzen dira; Bilbok, Donostiak eta Gasteiz programazioaren % 48 hartu zuten 2024an, eta urtean 3.000 ekitalditik gora antolatu zituzten, batez beste. Hiriburuak kenduta, EAEko 36 udalerririk baino ez zuten gaingitu urtean 100 ekitaldi programatzeko langa. Tartean izan ziren eskualdeko herririk populatuenerarik bi: Durango (334 ekitaldi 2024an) eta Zornotza (113). Eskualdeari dagokionez, 2024an 758 kultur ekitaldi antolatu ziren Durangaldeko 13 udalerrietan, egun bakoitzeko bi. Edozelan ere, kontuan hartu behar da datu estatistikook Kulturklik atariaren erregistrokoak direla, eta bertan ez direla herri eragileen, gaztetxeen eta zirkuitu ofiziale-

tatik kanpoko antolatzaileen ekitaldi guztiak islatzen.

Herri populatuetakoko ekitaldi erraldoiei barik, ANBOTOk herri txikietako eragileen ekitaldiei erreparatu zien: Garaiko, Izurtzako, Etxanoko eta Mañariko kultur ekitaldiak aztertu zituen, tokiko antolatzaileen ahotik. Garain enpresarik, eskolarik eta komertziorik ez egotera, Trumoitte elkarteak eta Nagusien elkarteak beharrezkotzat jotzen dute ekintzak antolatzea, biztanleak herriko bizimoduan sartzeko. Izurtzako Korrala Sormen Gune-ko kideek Gertufest jaialdia antolatzen dute urtero, eta herri txikietako ekitaldien xarma go-raipatu zuten, horietan enpatia gehiago eta herritarrenganako hurbiltasun gehiago dagoelako. Etxanon, ekitaldi masiboen inbidiarik barik, garai bateko udalerrien nortasunari eustea dute helburu. Halantxik azaldu zion ANBOTOrri Etxanoko auzo elkar-tereko Pascual Uriartek. Eta Mañarian hango kultur eztanda aletu genuen, biztanleen kopurua kontuan hartuta udalerririk honek antolatzen duelako kultur ekitaldirik gehien eskualdean.

## Alkate aldaketa Mañariko Udalean

Sei urtez Mañariko alkatea izan eta gero, Ainara Otxotorenak dimisioa aurkeztu zuen ekainean, "arrazoi pertsonalengaitik". Otxotorenaren ordeiz, EH Bilduko udal taldeak Aitziber Areitio proposatu zuen alkate izateko. Ekainetik bera da herriko alkatea

### Herririk Herri MAÑARIA

Ainara Otxotorena Mañariko alkateak bere dimisioaren berri eman zuen ekainean, eta gutun bat bidali zuen herriko etxe guztietara: "Sei urtez Mañariko alkate izatearen ardura izan ondoren, une zail honetan alkate kargua uztea erabaki dut. Erabaki pertsonala da, osasun arazoek eta bestelako arrazoi pertsonalek nabarmen eragin diotelako nire alkate lanak behar duen arreta eta dedikazioari", azaldu zuen. Otxotorenak herritarren konfiantza eskertu zuen, eta "herri bizigarriagoa" erakitzeke asmoz egindako "lan gogorra" gogorarazi: "Ohore

handia izan da Mañariaren zerbitzura egotea, eta zuekin batera gure herriko bizi kalitatea hobetzeko lan egitea", azpimarratu zuen.

Dimisiotik astebetera, Mañariko udalbatza alkate berria izendatzeko batu zen, eta EH

Bilduko Aitziber Areitio hartu zuen aginte makila, ordura arte alkateordea izandakoak. "Herritarrekin gertukoa izaten jarraituko dugu eta udaleko atea zabalik egongo da mundu guztiarentzat", azaldu zuen Areitio kargua hartu berrian.



Aitziber Areitio eta Ainara Otxotorena.

## Ignacio Andreuk bizi osoko margolanak erakutsi ditu

80 urteen langa igarota, artista durangarrak bere lehenengo erakusketa ipini zuen Durangon



Ignacio Andreu, Arte eta Historia Museoko erakusketan.

### Kultura DURANGO

**Bizitza** *bateko isilpeko lana* goiburugaz inauguratu zuen bere lehenengo erakusketa, Arte eta Historia Museoa. Andreu Euskal Herriko Emen artista taldeko kide izan zen 60ko hamarkadan; euskal kultura berpizteko asmoz batu

zen taldera. Berea da Tronperri dantza taldearen irudia, baita Kriskitinen banderaren eta hainbat kartelen diseinua ere. Halaber, berak eginikoak dira Kurutzia ikastolak oraintsura arte izandako logotipoa eta Gure Kabiya tabernako txorien irudia.





Blanca Onaindia.

## Blanca Onaindia omendu dute

Herririk Herri ZALDIBAR

Zaldibarko Udalak Blanca Onaindia omendu zuen, herriko lehenengo emakume alkatea. 1995-1999 artean izan zen agintari, EAJren banderapean. Omenaldi ekitaldia herriko plazan egin zuten, koraleko kideak, dantzariak eta herrikideak lagun. Eneritz Azpitarte alkateak ohorezko aginte makila eman zion, eta emakume aitzindaria dela aitortu.

# Gotzon Gomez, Gerediaga elkarteko lemazain berria

Durangarrak Nerea Mujikaren lekukoa hartu zuen, hura 22 urtean elkarteko presidente izan eta gero. Kargu berriak "bertigo" ematen ziola aitortu zuen Gomezek, baina mailari eusteko lan egingo zuela azpimarratu zuen

Kultura DURANGALDEA

Gerediaga Elkartek bere 60. urteurrena bete du aurten, eta, ospakizunez harago, elkartek bere barruko antolamendua berritzeko aprobetxatu du efemeridea. Maiatzaren amaieran, elkartek presidentetza aldatu zuen. 22 urtean Gerediagako lemazain izandako Nerea Mujikak Gotzon Gomezi pasatu zion lekukoa. Gomezek hunkiduraz eta bertigo hartu zuen kargua, eta Mujikak utzitako mailari eusteko lan egingo zuela adierazi zuen. Kargua utzi berriak eta kargua hartu berriak Gerediagako foru zelaian eszenaratu zuten ardura aldaketa, elkartaren 60. urteu-



Nerea Mujika eta Gotzon Gomez. GEREDIAGA

rena ospatzeko ekitaldian. Gomezek ekainean azaldu zuenez, elkartek lanean jarraituko du "iragana eta gaur egungoa zaintzen, baina datorrenari adiegon-da". Era berean, elkartaren erronka nagusia gazteak erakartzea zela ere azpimarratu zuen: "Ikusten dugu, adibidez, badaudela gazteak zaletasunak dituztenak, baina gero ez dira ausartzen horiek kaleratzera, ez dutelako biderik topatzen. Sormen Beka, adibidez, hortik doa, Durangaldeko gazteei, edo Durangaldeko gaiak jorratzen dituztenei, bultzada emateko; gainera, Astola aldizkariaren bitartez ikusarazi daitezke lan horiek gero. Normala den moduan, gazteak ez dira joaten nagusiagoak dauden elkarteetara, ez zaizkie erakargarriak egiten; niri ere gertatzen zitzaidan bere sasoian. Euren ekarpenak elkarte barruan egitea gustatuko litzaiguke, badutelako zer esan", hausnartu zuen.

Kulturaren balio orokorrari garrantzia ematera ere deitu zuen presidenteak: "Epe laburrean lortu gura izaten dira etekinak, eta hori ez da horrela".



**NEVERS**  
IKASTETXEA

**Konfiantzan  
hazi eta hezi**

**Bisita pertsonalizatuak  
urte osoan zehar**

📍 Bruno Mauricio Zabala Kalea, 6  
48200 Durango, Bizkaia

🌐 [neversikastetxea.com](http://neversikastetxea.com)

☎ 946 81 09 46

📷 @neversikastetxea



**Erreportajea** DURANGALDEA

Bizkaiko emakume baserritarrei ahotsa eta ikusgarritasuna emateko asmoz, EHNE sindikatuak herrialdeko hamar emakume baserritarren bizipenak batu ditu liburu batean. Maribi Ugarteburu kazetari amorotoarrak elkarriketatu ditu hamarrak, eta bera arduratu da denen bizipenak kontatzeaz. Jatorri, belaunaldi eta bizipen desberdineko ahotsak batu ditu; tartean, Durangaldeko kide bi: beharra Arrazolako ortuetan egindako Maritxu Telleria (Oñati, 1957) eta Orozketan ortugintzan dabilen Alazne Intxauspe (Andoain, 1984). Argi diote: "Harro gaude baserritar izateaz".

"Lurrari lotuta lan egitea eta lur horretan bizitzea zoragarria da, bizitzari ezin zaio gehiagorik eskatu". Halantxik azaldu zion ANBOTOrri Marxitu Telleriak. Ildo beretik berba egin zuen Alazne Intxauspek: "Gizartea hain doa azkar ze, gu geu ere gugandik aldentzen gabiltzala dirudi. Iru-ditzen zait ortugintzaren moduko prozesuetan konexioa lortzen duzula lurrarekin. Beharbada diru gutxiago daukat, baina honek neure buruarekin bat egiteko aukera eskaini dit", esan zuen. Eguneroko erronka da hori: "Hemen saldu behar duzu, hemen ikusgarri egin. Gasolina, plastikoa, prezioak goraka doaz. Ez gara mundutik deskonektatuta bizi, baina beste bake eta patxada batekin bizi dut dena".

# "Nekazaritzatik bizitzea bizitzeko modu bat da"

Bizkaiko EHNE sindikatuak herrialdeko hamar emakume baserritarren testigantzak batu ditu 'Erein, borrokatu, bizi' liburuan; tartean, Maritxu Telleriarenak eta Alazne Intxausperenak. ANBOTO biekin elkartu zen uztailan, euren bizipenez aritzeko



Maritxu Telleria eta Alazne Intxauspe.

**Zaintza eta belaunaldi berriak**

Liburuko testigantzetan azpimarratzen den beste ezaugarri bat zaintzarena da. Familiaren zaintza, uztarena, naturarena. Intxauspe horretaz kontzienteago da mugimendu feministaren lanketari eskerrak: "Izena jarri diet orain arte txikitako sozializazio prozesuagatik izandako portaerei: gurasoekiko hartuemana zaintzea, inguruko edadetuak zaintzea, lurra zaintzea. Hiru langile gara, baina iruditzen zait sarritan nik dudala egunerokotasuna zaintzeko ardura hori". Telleriaren berbetan, alor guztietan dago zaintza, eta emakumeen arduratzat hartu izan da, nahiz eta gauzak "apurka aldatzen" dabiliztan.

Sektorearen bilakaeraz galdetuta, "askoz ere langile gutxiago" dagoela esan zuen Intxauspek: "Asko kostatzen da jende berria sartzea. Eta, sartu arren, zail da gero horiek denboran irautea". Nekazaritzatik bizitzea bizitzeko era bat dela uste du Telleriak. Etorkizunari begira, administrazioak lehen sektoreko politikak aldatu behar dituela uste du. "Jende berria sartzea da erronka, bestela desagertu egingo gara eta", gaineratu zuen Intxauspek.

**INTXAUSPE: "JENDE BERRIA SARTZEA DA ERRONKA, BESTELA DESAGERTU EGINGO GARA ETA"**

## Izaskun Ellakuriaga kazetari iurretarra hil da, 53 urteagaz

Gerediagako komunikazio arduraduna eta Bizkaia Irratiko esataria izan zen; irailean, agur ekitaldia egin zioten



Izaskun Ellakuriaga. GEREDIAGA

**Kultura** DURANGO

Bizkaia Irratiko goizetako ahotsa amatatu egin zen uztailan. Izaskun Ellakuriaga Bustintza kazetaria (Iurreta, 1972) 53 urteagaz zendu zen. Gerediaga Elkarteko komunikazio arduraduna izan zen urte askoan. Durangoko Azokaren Komunikazio eta Marketin arduraduna ere bai. Bizkaia Irratian urteak eman zituen goizetako programan esatari.

Bestalde, hainbat urtean Eraz aldizkarian —ANBOTOrren aurrekaria— erredaktore eta zuzendari lanetan aritu zen, eta, ondoren, komunikazioko beste esparru batzuetan ibili zen. Lekukom komunikazio agentzia sortu zuen Marijo Deogracias kazetariagaz batera. Gerediaga elkarteko kideek agur beroa egin zioten, irailean, Gerediagako Foru Zelaian.

## Iker Dorronsoro izendatu dute Kulturalako entrenatzaile berri

Errenteriako Touring taldetik etorri da Durangora. Aurretik, Eibarko emakumeen taldeagaz igoera lortu zuen

**Kirola** DURANGO

Durangoko Kulturalak entrenatzaile berria fitxatu zuen uztailan, mailari eusteko borrokan aritu zen denboraldia ahaztu eta etapa berri bati ekin ahal izateko. Iker Dorronsoro donostiarra da eta Errenteriako Touring taldetik etorri zen. Futbol klub biak Hirugarren RFEF mailan dabilta. Dorronsororen gidaritzagaz, Touring taldeak oso denboraldi ona osatu du aurten: zazpigarren tokian sailkatu da, *play off* postuetatik gertu.

**Esperientziaduna**

Esperientzia zabala du aulkietan, eta bere lorpenik garrantzitsuena 2021ean Eibarko emakumeen taldeagaz Lehenengo Mailara igo izana da. Gainera, hurrengo denboraldian mailari eustea lortu zuen.

Pablo Bizkarra, Lander Aspionza, Hantz Lopez, Diego Fernandez, Unai Arieta, Markel Areitio, Jon Lejardi eta Unai Ariz jokalariek taldean jarraituko dutela baieztatu zuen futbol taldeak uztailan egindako aurkezpenean.



# "Gustuko ardoa da onena, 10 zein 1.000 euro balio"

Etxebarri jatetxeko Mohamed Benabdallah-k munduko sommelierrik onenaren saria jaso du aurtun The World's 50 Best Restaurants galan. "Etxebarri jatetxeari eta niri bide luzea geratzen zaigu aurretik", azaldu zuen ANBOTOk egindako elkarrizketan

## Erreportajea ATXONDO

Mohamed Benabdallah-k kontuan hartzeko moduko ibilbidea du sommelier legez: Quique Dacosta eta Mugaritz jatetxe arrakastatsuetan ibili eta gero, Etxebarri jatetxera batu zen 2017an. Hala ere, ez du uste goia jo duenik: ardo onak legez, denboragaz hobetzen jarraitzea du helburu. Oso pozik eta esker oneko azaldu zuen munduko sommelierrik onenaren sariagaz.

Sukaldeagaz eskutik helduta joatea "oso garrantzitsua" dela azaldu zuen Benabdallah-k. "Bilatzen dudan beste ezaugarri bat hau da: bezeroari lurralde desberdinetako ardoa nahiko prezio



Mohamed Benabdallah.

lehiakorrean eskaintzea", esan zuen. Eta bezeroari neurria hartu behar zaiola ere esan zuen: "Gomendioak emango dizkiot, baina ideia argi bat badu hobe da gehiegi ez tematzea. Bezeroa bere familiagaz edo lagunekin gozatzen dabil".

Upategirako ardo aerostera koan hainbat kriterio kontuan hartzen duela azaldu zuen: "Ondo aztertu probatzen duzun ardoa eta hurrengo urteetan izan dezakeen garapena. Beharbada ardo bat gaur ez zaizu asko gustatuko, baina bost urte barru oso ardo ona izango dela antzeman dezakezu. Ekoizlea ezagutu, zonaldea eta mahastia ikusi, eta potentziala ikusten diozu". Eta hauxe azpimarratu zuen: "Gustuko duzun ardoa da onena, 10, 100 zein 1.000 euro balio. Ez da ardoari buruz asko jakin behar ardoaz gozatzeko".

**OSO POZIK ETA  
ESKER ONEKO AZALDU  
ZEN MUNDUKO  
SOMMELIERRIK  
ONENAREN SARIAGAZ**



Ainara Arkarazo.

## "Mendiak jolasa izaten jarraitzen du"

### Kirola ABADIÑO

Ainara Arkarazo Legarreta mendi korrikalariak (Abadiño, 1996) Euskal Herriko Ultren Kopa irabazi zuen. Ezustean heldutako garaipena izan zela esan zuen. "Mendiak jolasa izaten jarraitzen du. Helburuetan arreta ipinita, baina zoratu barik. Ez nau mugatzen. Nire helburu nagusia gozatzea da", esan zuen.



**Eguberri zoriontsuak  
eta 2026 urte berri on!**





Kike Bilbao.

# "Nekazaritza eredua aldatzea dugu helburu"

Kike Bilbao Larringanek (Atxondo, 1986) ortuari ekologikoak ekoiztu eta saltzeko proiektua sortu zuen orain sei urte, familiaren Etxetxiki baserriaren izenagaz; sasoiko produktuekin otzara itxiak banatzen ditu. Auzolanean eraikitako proiektua da

**Herririk herri** ELORRIO

Sasoiko eta bertako kalitatezko elikagai ekologikoak eta osasun-garriak eskaintzeko helburuagaz jaio zen Etxetxiki. Halaxe dio Kike Bilbao, auzolanean eraikitako proiektuaren atzean dagoen nekazariak. Sasoian sasoiko ortuariekin 20 otzara itxi banatzen ditu astero. Horrez gainera, Anbotopeko dendan saltzen dituzte produktuak. "Produktzio txikia da, dugin nekazaritza eredua

aldatzeko helburuagaz sorturikoa", esan zuen atxondarrak.

Landareak eta loreak saltzeko baliatzen dituzte azokak. "Horrek bereizten gaitu, apur bat. Neguan asko ereiten dugu, udaberrian landareak edukitzeko, baina baita azoketan saltzeko ere", argitu zuen. Produktzio "txikia" da eurenena. "Ezin dugu asko landatu, eta ez da gure helburua, gainera. Landareak salduta gastuak murrizten ditugu", esan zuen.

## Urmuga ekimen artistikoaren geltoki izan da Mañaria

Eñaut Elorrieta, Janus Lester eta Xak taldeko kideak aritu ziren, besteak beste, Et Incarnatus Orkestragaz



Angurreta espazioan egindako ekitaldiaren irudi bat.

**Herririk herri** MAÑARIA

Araban abiatu zen Urmuga, Euskal Herriko mendi, bailara eta herriak musikaz bete dituen ekimen herrikoi eta artistikoa. Bizkaian lau mendi etapa egin zituzten, eta Mañariko Angurreta espazioan egindako geldialdian

Eñaut Elorrieta, Janus Lester eta Xak taldeko kideak aritu ziren, besteak beste, Et Incarnatus Orkestragaz. "Hasieran deserosoa dirudi, baina oso esperientzia aberasgarria da musikari legez ere", esan zuen Maddi Arana musikariak.

## Durangoko Gaztetxeko auzipetua absolbitu dute

Gaztea ekainaren 25ean epaitu zuten, Montorretako marmol-fabrika zaharraren okupazioagaz lotuta. "Argi geratu da borrokatzeak merezi duela" nabarmendu zuten Kaletik Gaztetxera dinamikako kideek ebazpenaren berri izan ondoren

**Herririk herri** DURANGO

Kaletik Gaztetxera dinamikako kideek jakinarazi zuten, epaileak absolbitu egin zuen Montorretako marmol-fabrika zaharraren okupazioagaz lotuta auzipetutako durangarra. Gaztea ekainaren 25ean epaitu zuten eta epaileak handik hilabete ingurura kaleratu zuen ebazpena. Gaztetxeko kideak pozik agertu ziren sententziagaz: "Argi geratu da borrokatzeak merezi duela, gazte eta langile borroka merezi duela", esan zuten.

Edozelan ere, Gaztetxeko kideek ohartarazi zuten absoluzioak ez du esan gura bide legal guztiak amaitu direnik. "Ez dago ezer

bermatuta", esan zuten. Hori dela eta, Gaztetxearen alde lanean jarraitzeko asmoa berretsi zuten. "Ekintzak antolatzen jarraituko dugu aurrerantzean", iragarri zuten. Gazteen arteko antolakuntzaren egoera "ona" dela gaineratu zuten Kaletik Gaztetxera dinamikako gazteek.

**GAZTEEN ARTEKO ANTOLAKUNTZAREN EGOERA "ONA" DELA ADIERAZI ZUTEN**

**Galtzareta Jauregia**

Epaiketaren testuinguruan, ekainaren 23an, Mireia Elkoroiribe alkatea prest agertu zen Galtzaretako jauregia Durangoko gazteei eskaintzeko. Alabaina, Kaletik Gaztetxerako kideen esanetan, proposamenak ez zien gazteen beharriaz erantzuten. "Alkateak argi utzi du ez duela eraikina Gaztetxea izatea gura", argudiatu zuten dinamikako kideek, eta, horrenbestez, alkatearen eskaintza ez zuten nahikotzat jo. "Gainera, kontuan hartu behar da alkateak zein momentutan egin dituen adierazpenak; oso indartsu gauden momentu batean, hain zuten ere", gaineratu zuten.



## Eibar taldeak Areitioko kirol azpiegitura estreinatu du

SD Eibar taldeak Areitioko Kirol Hirian ekin zion denboraldiari; tartean, Lander Olaetxea abadiñarrak

**Kirola** MALLABIA

Aurreikuspen guztiak beteta, SD Eibarrek jokalariek Areitioko Kirol Hirian eman zioten hasiera denboraldiari, Mallabian. Hasiera-hasieratik horixe zen klubaren helburua eta horrelaxe egin zuten. Taldeko fitxaketa berriak aurkezteko baliatu zuten hitzordua; tartean, Lander Olaetxea abadiñarra.

Talde armaginak ezagutarazi zuen lehenengo fitxaketa izan zen abadiñarrarena; hain zuzen ere, urtebeterako kontratua sinatu zuen Eibarregaz. Olaetxea Gijongo Sporting taldetik heldu zen Eibarrera, han denboraldi bakarra egin eta gero. Aurretik, Albaceten, SD Amorebietan eta Logroñesen aritu zen, besteak beste. "Eibarrenaren moduko proiektu batera batzea berri pozgarria da. Urteetan izan naiz etxetik kanpora, eta niretzat



Olaetxea, eskumatik hasita lehenengoa.

Eibarrera batzea etxera bueltatzea da", azaldu zuen aurkezpenean. Beñat San Josek gidatzen duen taldeak 25 jokalarigaz ekin zion denboraldiaurreari. Eibarrek abuztuaren 16an hasi zuen denboraldia, Malagaren aurka, Rosaledan.

## "Atxarten gertaturikoa azaldu behar dugu"

EHUko Ekopol ikerketa taldea eta Abadiñoko Udala Atxarteko harrobiak zelan birnaturalizatu aztertzen hasi dira. Iñaki Barcena ikerketa talde horretako kidea da. Harrobiei kontrako aktibista izan zen 90eko hamarkada hasieran

**Erreportajea** ABADIÑO

Zelan birnaturalizatu Atxarteko harrobiak? Galdera horri erantzun guran, Abadiñoko Udalak eta EHUko Ekopol ikerketa taldeak prozesu bat hasi dute ingurune naturala lehenagoratzeko. Iñaki Barcena ikerketa talde horretako kidea da eta harrobiei kontrako ekin-tzaile ekologista izan zen 90eko hamarkada hasieran. "Atxarten gertaturikoa azaldu behar dugu, eta gertatutakotik ikasi", azaldu zuen Barcenak.

Urtebeterako prozesu parte-hartzaile bat ipini dute martxan bertako hainbat talde eta eragileguz eta interesatuta dauden

guztiekin. "Atxarte gizarte industrialean jipoitutako ingurune naturala da, gizakion lanak izorratutakoa. Beraz, uste dugu

gizartearen ahotsa kontuan hartuta egin behar dela erre-kuperazioa", nabarmendu zuen Barcenak.



Iñaki Barcena.



Jaialdiko antolatzaileek elkarretaratzea egin zuten. 40 MINUTU ROCK

## Diru bilketa egin zuten 40 Minutu Rock-ek aurrera egiteko

Ezezagun batzuek jaialdiaren material elektrikoa ostu zuten, eta 10.000 eurotik gorako kalte ekonomikoa eragin

**Herririk herru** DURANGO

Ezezagun batzuek jaialdirako material elektriko guztia ostu eta gero, 40 Minutu Rock-ek ekarpen ekonomikoak jasotzeko kanpaina bati ekin zion jaialdia antolatzen jarraitu ahal izateko. Lapurretak

10.000 eurotik gorako galera ekonomikoa eragin zuen. Jaialdia irabazi asmorik barik antolatzen dute urtero, eta etekin guztiak "euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko borrokarako" erabiltzen dituzte.







Zamorako sutea.

# Suteek piztutako ardura Zamora inguruan

Suteek kontrolik barik aurrera egin zuten abuztuan, eta kezka eta ardura piztu zituzten Iberiar penintsula osoan. Kalte nabarmenak eragin zituzten. Gertaera honek Zamoran harrapatu zituen Udane Rodriguez durangarra eta Eufemia Alberdi mañariarra

## Herririk herri DURANGO/MAÑARIA

Abuztuan Iberiar Penintsulan piztutako suteek Durangaldeko hainbat lagun oporretan harrapatu zuten; Udane Rodriguez eta Eufemia Alberdi, Zamoran.

Udane Rodriguezen eta bere familiaren kasuan, suteak Sotillo de Sanabrian duten etxean harrapatu zituen. Hasieran, Portoko eta inguruetako kea igartzen hasi ziren. Ondoren, alerta mezua jaso zuten kea zela eta, eta denei etxean geratzea gomendatu zieten. "Oraingoz ez gaude ebakutzeko premian. Hala ere, badakigu San Martin de Castañeda, Vigo de Sanabria, Coso, Murias, San Ciprian, Cerdillo, Rabano, San Justo eta Doney herriak ebakuatu dituztela", azaldu zuen Udane Rodriguez durangarrak.

Eufemia Alberdi Mañarikoko Arri Toki jatetxekoak ere antzerako esperientzia bizi izan zuen. Zamorako Murias de Sanabria herrian etxea du. Urtero legez, uda pasatzera joan zen bertara,

baina suteen ondorioz planak aldatu behar izan zituen. Abuztuaren erdialdean alarma guztiak piztu ziren mañariarra zegoen inguruan. "Galiziatik, Ribadelagosetik, sua hurbiltzen hasi zen. Murias de Sanabrian alerta mezua jaso genuen mugikorrean astelehen goizean. Arratsaldean, herria ebakuatu beharra zegoela esan ziguten. Egoera horren aurrean, alde egitea erabaki genuen. Orain Madrilen nago, ea zer gertatzen den", azaldu zuen mañariarrak. Muriasetik nora joan ez zutenentzat autobusak eta aterpetxeak egokitu zituztela azaldu zuen Alberdik.

Ebakuzioaren aurrean, gauzarik gehienak etxean utzi zituzten. "Batez ere dokumentuak

hartu ditugu, baina arropa eta horrelakoak bertan utzi ditugu. Balio handiko gauzarik ere ez dugu bertan", gogoratu zuen. Sutearen inguruko albisteak gertutik jarraitu zituzten. "Atzo haizearen norabidea aldatu egin zen eta lasaitua hartu genuen. Baina sua berriro ere aurrera egiten dabil gaur. Etxeak blokeko sotoa du, ia leihorik barik. Sua hara helduta ere uste dugu ondo mantenduko litzatekeela. Baina, batek daki. Oso egoera tristea da denontzat", gaineratu zuen.

**Suteak aurrera kontrolik barik**  
Suteek Iberiar penintsulako ipar-mendebalde kiskali zuten. Sua Europako mendietako parke naturalera ere heldu zen, baina aurreikuspenik txarrenak ez ziren bete. Guztira, 344.000 hektarea baino gehiago erre ziren eta milaka lagun ebakutu behar izan zituzten. Lau pertsona hil ziren suteen eraginez.

**EUFEMIA ALBERDI:  
"HERRIA EBAKUATU  
BEHARRA ZEGOELA  
ESAN ZIGUTEN"**



Mallabiko txapelketa.

## Karlos Ardanza eta Mendi garaile Bizkaiko txapelketan

Mallabiko txapelketan, minutu bateko isilunea egin zuten Jose Mari Ustarroz antolatzaile nafarra

### Herririk herri MALLABIA

Abuztuaren 17an Bizkaiko 59. Ardi-txakur Txapelketa lehiatu zuten Mallabian. Hamar txakur izan ziren lehiaketa eta Karlos Ardanza abadiñarraren Mendi txakurra izan zen irabazlea. Markos Aspizua urduñarra geratu zen bigarren, Negu txakurragaz, eta Juan Jose Egurrola etxebarriarra hirugarren, Base-ri txakurragaz. Lehenengo hirurak irailaren 13an Garain jokatu zen Euskal Herriko txapelketako sailkatu ziren.

Beste hiru abadiñar ere lehiatu ziren. Jose Migel Etxebarria eta Soli txakurra bosgarren geratu ziren; Kepa Ardanza eta Urbi txakurra, seigarren, eta Jose Angel Azkorbebeitia eta Lutxi txakurra, zazpigarren.


Txapelketan minutu bateko isilunea egin zuten Jose Mari Ustarroz antolatzaile nafarra gogoratzeko. Horrez gainera, Juan Egurrola artzaina omen-du zuten, artzain txakur txapelketetan egindako ibilbidea gaitik.

## Iker Unzueta abadiñarra CD Lugo taldean fitxatu dute

Amorebieta, Logroñes, Portugalgo Vizela eta Huesca taldeetan jokatu eta gero, Unzueta Galizian dabil orain

### Kirola ABADIÑO

Urtebetez Bigarren Mailako Huesca taldean ibili eta gero, Iker Unzueta (Abadiño, 1998) etapa berri bati ekin zion Galizian abuztuan. Abadiñarra Lehenengo Federazio mailako CD Lugo taldera batu zen. Urtebeterako kontratua sinatu zuen eurekin, eta, helburuen arabera, beste urtebetez luzagarria da. Unzueta "mugikortasuna, golerako usaimena, lanerako ahalmena, bertikaltasuna eta intentsitatea" nabarmendu zuen klub galiziarrek.



Iker Unzueta.



## Bixente Aizpurua elorriarra hil da

Hainbat urtez ANBOTOn iritzi zutabeak idatzitako kolaboratzailea abuztuaren 4an zendu zen

**Herririk Herri** ELORRIO

Elorriarrek arrazoi on ugarigaitik gogoratuko dute Bixente Aizpurua Eguren. Askok Lourdesko Ama ikastetxeko irakasle eta zuzendari legez gogoratuko dute, bertan lan egin zuen-eta erretiroa hartu zuen arte. Beste hainbatek Kainabera elkartean edo Argiñetako kofradian egon zelako gogoratuko dute. Jaien amaieran, hil berrian, Argiñetako auzotarrek omenaldi txiki bat egin zioten herrikideari.

ANBOTOk lantaldeak ere luzaroan gogoratuko du Bixente Aizpurua, baita bere ekarpena eta eskuzabaltasuna ere. Beti prest egoten zen iritzi zutabeak idazteko eta hausnarketarik interesgarrienak lantaldeagaz eta astekariko irakurleekin partekatzeko. Eskerrik asko, Bixente, hainbeste urtean ANBOTOr, tokiko informazioari eta euskarari ekarpenik eskuzabalena egitearren!



Bixente Aizpurua.

## Alves dantza taldeko maisuari omenaldia

Augusto Alves mañariarrari omenaldia egin zioten herriko jaietan. Umetatik taldeko dantzaria izan da eta azken 15-20 urteetan irakasle aritu da taldean



Augusto Alves Mañariko jaietan, dantza saioaren ondoren.

**Herririk Herri** MAÑARIA

Andra Mari taldeko dantzari gazteek dantza saioa egin zuten Mañariko jaietan. Beste askotan legez, Augusto Alves irakaslea (Mañaria, 1968) inguruan zuten, talde osoari aholkuak eta animoak ematen. Baina saio hura berezia zen, Alvesen agurrekoa zelako. Dantza taldea utzi zuen, arrazoi pertsonalengaitik. Umetatik taldeko dantzaria izan da eta azken 15-20 urteetan irakasle aritu da bertan, etapa bitan banatuta. Horregatik, dantzariak emanaldi hori omenaldi legez bizi izan zuten.

Dantza saioa amaitu zenean hasi zen omenaldia. Dantzariak ohorezko pasilloa egin eta lore sorta bat erregalatu zioten. Alvesen eta dantzari guztien arteko besarkada handi batez eta pilotalekua lepo bete zuten herriarren txaloen artean amaitu zen ekitaldia. Alvesek "oso hunkituta" zegoela eta omenaldiak ezustean harrapatu zuela adierazi zuen. "Ez nuen inondik inora espero!", esan zuen. Adierazi zuenez, ez du bazterten denbora batera bueltatzea.

## Carrillo ahizpak paelletan

Carrillo ahizpak saltsarik saltsa ibiltzen dira beti paella eta marmitako txapelketetan. Aurtengo Kontzejuzarraren ondoan egon dira lehian, bakoitza bere kuadrillagaz. Sekula ez diote hitzordu gastronomikoari hutsik egiten. "Jaietako egunik politena izaten da", esan zuten Angelinesek eta Maribik jaietari buruz galdetuta.



Angelines eta Maribi Carrillo.



*Baserrria zure eskuetan*





**Leche BIZKAIA Esnea**

[www.bizkaiaesnea.com](http://www.bizkaiaesnea.com)



# "Gure lana ikusgarriago egiteko espazioa da txupina"

Etxeko lanez eta zaintza lanez arduratzen den emakume talde batek irakurri zuen Elorrioko Ferixa Nausikoetako pregoia; euren lana ikusgarriago egiteko baliatu zuten aukera; ANBOTO Grettel Antonia Díez eta Xiomara del Carmen Perezegaz batu zen



Grettel Antonia Díez eta Xiomara del Carmen Pérez.

**Herririk herri** ELORRIO

Ferixa Nausikoetako txupin jaurtiketako serpentinez gainera, aldarrikapena ere agertu zen. Izan ere, etxeko eta zaintza lanez arduratzen den emakume migrante talde bat arduratu zen pregoia irakurtzeaz; *Zaintzarik barik bizitzarik ez* ikastaroan parte hartu duten kideak izan ziren, hain zuzen ere. ANBOTO eurretan bigaz batu zen, Grettel Antonia Díez Gutierrezegaz eta Xiomara del Carmen Perezegaz. Pozik zeuden pregoia irakurtzeko arduragaz. "Gutari-ko askok ezingo dute ekitaldian parte hartu, ordutegiagaitik, baina gure jarduna ezagutarazteko baliatuko dugu aukera", azpimarratu zuten. Biak nikaraguarak izan arren, Elorrioren ezagutu dute elkar; Diezek urte bi daramatza Elorrioren, eta del Carmenek sei. 93 urteko emakume bana zaintzen dute. "Zaintzen ditugunekin batera familia bat osatzen dugu eta herrian ere oso pozik nago; bertako jendea oso atsegina da eta nire etxean lez sentitzen naiz. Alde horretatik, ez dut nire herrialdearen falta igartzen", azaldu zuen Grettel Antonia Díez Gutierrezek. Xiomara del Carmen Perezek ere gogotsu hartu zuen herrian pregoia irakurtzeko proposamena. "Oso pozik nago gonbidapenagaz. Antolatzaileei eskerrak eman gura dizkiegu etxeko zaintzaileak eta gure lana kontuan hartzearen. Pozgarria

da, egiten dugun lana ikusgarriago egiten dutelako horrela. Herriko jaietan espazio bat eman digute gure lana ezagunago egiteko", esan zuen. Pregoian irakurri zuten testua horri buruzkoa izan zen. "Gure mezua emakume migratzaileona da. Beste herrialde batzuetatik heldu gara hona, lan egitera eta gure ekarpena egitera, gure kasu konkretuan adineko pertsonak zaintzera", gehitu zuen Diezek. Lan ordutegiengaitik gatxa izan arren, Ferixa Nausikoez gozatzen ahalegindu ziren biak. "Behin txupina jaurtita, zaintza lanetan ari garen emakumeok harremandu eta elkarregaz egoteko aukera ere izango dugu", esan zuten.

Ekitaldian, abuztuan zendu zen Bixente Aizpurua gogoan izan zuten. Aizpurua hainbat ekimen solidariotan parte hartzen zuen; tartean, Kainabera GKEagaz lan egiten zuen, eta Ferixa Nausikoetan egiten den kulturarteko azokaren antolakuntzan parte hartu zuen. Elorrioren bizi diren jatorri desberdinetako herriarrek euren herrialdeetako ohitura eta jakiak erakusten dituzte azokan.

**PREGOILARIEK  
BIXENTE AIZPURUA  
ELORRIARRA GOGOAN  
IZAN ZUTEN TXUPIN  
EKITALDIAN**

## Frankismoaren biktimak gogoratu dituzte Berrizen

Frankismoaren biktimen aldeko oroimen ekitaldia egin zuten Berrizen, irailaren 11gaz batera



Ekitaldiko irudi bat.

**Herririk herri** BERRIZ

1937ko irailaren 11n Felipe Uriaga eta Jose Agirre berriztarrak fusilatu egin zituzten Derion (Bizkaia). Urte bereko abuztuan Gregorio Urkijo fusilatu zuten, eta urte batzuk geroago Fermin Aranguren, Asturiasen. Berrizko Memoriaren eta Giza Eskubideen taldeak deituta, frankismoaren biktimen aldeko oroimen ekitaldia egin zuten irailaren 11n. Bertaratu zirenek Oroimenaren Bidea egin zuten eta panel berria inauguratu zuten. Ondoren, *Gerra eta errepresioa, Berriz 1936-1939* liburu proiektuaren aurkezpena egin zuten. "Justiziaren eta askatasunaren alde borrokatuta erakutsi ziguten bidea, eta horregaitik gogoratu-ko ditugu beti giza eskubideak eskatuta", azaldu zuten antolatzaileek ekitaldian.



## Axkoeta Beitiatarrak, txistuaren jagole

**Akuilua** DURANGO

Alex eta Irati txistuagaz eta danbolinagaz, eta Garazi eta Naiare klarineteagaz eta zeharkako flautagaz, kaleak doinuaz alaitzera irteten dira. Alex aitak Ibon eta Amaia Aromagaz ikasi zuen. Alabak Erdi Mailako ikasketak egiten dabiltza Bartolome Ertzilla musika eskolan.




Ardi moztailerik onenak Abadiñon

**Herririk herri** ABADIÑO  
Euskal Herriko eta Nazioarteko ardi moztaille txapelketak jokatu zituzten Abadiñon, probalekua jendez lepo zegoela. 80 parte hartzaile egon ziren guztira. Antolatzaileen esanetan, lehenengo edizioa "ederra" izan zen eta "oso pozik" geratu ziren jasotako erantzunagaz eta "egunean zehar izandako bizipenekin".



EUSKAL ARDI MOZTAILEEN ELKARTEA



Arbeo, Tarragonako podimuean.

Sator hegalarik baten istorioa, Iurretatik Sahararaino

'Sator hegalarik: Iurretako berbeta eta literatura' titulua Charif Aomar Omar gaztearen ipuin batetik dator

**Erreportajea** IURRETA  
Iurretako idatzizko eta ahozko ondarea batzeko asmoz, *Sator hegalarik: Iurretako berbeta eta literatura* liburua kaleratu zuten 2024an Pamielagaz, herriko hainbat lagunen auzolanari eskerrak.

Sustrai sahararrak dituen Charif Aomar Omar gaztearen ipuin batean topatu zuten liburuari izena emateko ideia. Charif Iurretan jaio zen, 2007an; Maiztegi herri eskolan Lehen Hezkuntzako bigarren mailan ikasten ze-

goela, irakasleak ipuin bat idazteko ariketa ipini zien Charifi eta gelakideei. Berben eta esaldien jolas horretan, umeak sator baten abentura imajinatu zuten, lurpean bizi arren hegan egitea amesten zuten sator batena, hain zuzen ere. Charifek Iurretako literatura lehiaketa irabazi zuen ipuinagaz. Pamielak argitaratutako liburua Joseba Sarrionandiak eta Xabier Bovedak editatu zuten, eta "euskaldunon erresilientziaren kontakizuna" izan daitekeela nabarmendu zuten aurkezpenean.



Charif Aomar Omar.

Arbeoren lehenengo zilarra absolutuan

**Kirola** DURANGO  
Beheko kategorietan hainbat domina irabazi eta gero, June Arbeo atleta durangarrak maila absolutuko lehenengo domina lortu zuen abuztuan, zilarrezkoa. Tarragonan egindako Espainiako Txapelketan lortu zuen, 3.000 metroko oztopadun proban, bere modalitate kulturean. Denboraldi hasieratik zuen helburua buruan. "Oso pozik nago", esan zuen.



# Herriarekin eta herriarentzako lanean jarraituko dugu





**Erreportajea** DURANGO

Monika Salgueirok suizidologia du ikergai, eta suizidioa prebenitzeko neurriak eta ezagutza zabaltzen ditu Aidatu elkartearen eskutik; Euskal Herriko Unibertsitateko psikologia fakultateko irakaslea ere bada. Suizidioa Prebenitzeko Nazioarteko Egunagaz bat eginda, Durangoko Udalak ekitaldi sorta egin zuen. Besteak beste, zineforuma egin zuten Jon Sistiagaren *Tabú: y al final, la muerte... huida* pelikula ardatz hartuta; Lorena Martin psikologoagaz batera jardunaldia ere egin zuten. Salgueirok uste du berba gehiago egin behar dela suizidioari buruz. "Uste dugun baino gehiago dakigu, baina oraindino ez da nahikoa. Gaiari buruz berba egiterakoan, gutariko gehienoi 'suizidioak' datozkigu burura, 'suizidio bidezko heriotzak', baina joera suizida hori baino fenomeno askoz globalagoa da, konplexuagoa, faktore asko duena. Eta hor ez daukagu kausa argirik edo ezagunik", azaldu zuen.

Suizidioak dituen ezaugarriak buruz ere mintzatu zen bilbotarra. "Ez dago profil zehatzik, baina



Monika Salgueiro Macho.

## Suizidioaz epairik barik berba egiteko deialdia

Suizidioa Prebenitzeko Nazioarteko Egunagaz, Durangoko Udalak hainbat ekintza antolatu zuen Aidatu elkartearen laguntzagaz; bertako kidea den Monika Salgueirok suizidologia du ikergai, eta prebenitzeko neurriak eta ezagutza dibulгатzen ditu

arrisku faktore asko bai; identifikatuta ditugu. Adibidez, gizonetakoetan emakumeetan baino gehiago gertatzen da, nahiz eta emakumeek suizidio ahalegin gehiago egin. Adina ere arrisku faktorea da, suizidio tasa handiagoa delako pertsona oso adindunetan", azaldu zuen. Detekzioari buruz galdetuta, "alarma seinaleak" egoten direla azpimarratu zuen. "Batzuetan, oso aitorten argiak dira. Adibidez, bizitzaz nekatuta dagoela adieraztea, heriotzari buruz modu orokorrean berba egitea, despedida modukoak egitea... Beste batzuetan, jokabide kontraesankorrak izan daitezke alarmarako seinale. Adibidez, bolada triste eta txar bat igaro duena halako batean primeran eta zoriontsu aurkeztea". Horregaitik, suizidioari buruz berba egiten hasteko deia egin du irakasleak: "Joera suizida estigmatiz inguratua dago eta guk beldur moduko batezaz bizi dugu. Gurago izaten dugu ez begiratu. Eta beldur hori dela eta, oraindino jende askok uste du hobe dela barbarik ez egitea, gaia saihestea. Baina isiltasunak, lagundu barik, kontrakoa eragiten du".

## Orozketako auzo eskolaren mendeurrena ospatu dute

Orozketako auzo eskolaren 50. urteurrena ospatzeko, hainbat belaunalditako auzotarrak batu ziren

**Akuilua** IURRETA

Auzotarrek elkargune bat legez gogoratzen dute Orozketako auzo eskola, topagune bat. "Auzotarren bizimoduaren parte izan da beti". Mendeurrena bete duela eta, ANBOTOk belaunaldi biko kide

bi batu zituen, Nerea Beaskoetxea Sarrionandia eta Jose Txintxurreta Alberdi. Jose lehenengo ikasleatariko bat izan zen, eta Nerea azkenekoetarikoa. "Pozik eta ilusinoagaz joaten ginen eskolara, olgau egiten zen eta;

etxean ezin zen", gogoratu zuen Txintxurretak. "Oroitzapen politak ditugu. Horixe izan zen domekan elkartu ginenon artean zer esana. Gure mundua zen", esan zuen Beaskoetxeak.

Auzo eskola denentzat "hurbi-lekoa" zela gogoratu dute. "Eskola kanpoan olgetan ginen, eta gogoan dut Esther irakasleak fluorra ematen zigula jolas orduetan. Bi-hiru irteera egin genituela ere gogoan dut, kostaldera eta Gabonetako parkera", nabarmendu zuen Beaskoetxeak.



Nerea Beaskoetxea eta Jose Txintxurreta.

# PABILIOIA SALGAI

Iurretan, Mercadona ondoan

1.190m<sup>2</sup>

## ZARATE ELEXPE

ERAGILEAK

Tel.: 94.681.66.73

Mug.: 649 40 26 23

zarateylexpe.com



# Euskal komunitatearen berraktibazioa aztergai

Taupa euskaltzaleen mugimenduak deituta, egun osoko jardunaldia egin zuten Durangoko Plateruenean, komunitate euskalduna aktibatze gitzak bilatu guran; Saio hori Taupada jardunaldien bigarren edizioa izan zen; irailaren 25ean izan zen

**Herririk herri** DURANGO

Taupa mugimenduak komunitate euskalduna aktibatze gitzak bilatu gura ditu eta hausnarketa jardunaldia antolatu zuten zeregin horretarako. Irailaren 25ean, Euskal Herriko mugimendu euskaltzaleetako kideak Durangon batu ziren gure udalerrietako ohiturek komunitate euskaraduna aktibatze duen gaitasunaz hausnartzeko. Taupak jardunaldi bat antolatzen duen bigarren aldia izan zen irailekoa. Jardunaldia Durangoko Plateruena Kultur Aterpean egin zuten, 09:30etik 16:30era bitartean. Dozenaka euskaltzale batu ziren hitzordura.



Taupa euskaltzaleen mugimenduko kideak.

Hainbat berbaldik osatu zuten egitaraua; besteak beste, Gau Beltzaren bilakaera, euskal pop kultura berria, Lapurdiko inauterien biziberritzea eta kultur ondarearen transmisioa aztertu zituzten hitzaldietan. Naturaren eta ohituren arteko lotura eta Atsolorra ere hartu zituzten berbagai.

## Globalizazioaren aurrean

Globalizazio garaia direla eta, Taupa euskaltzaleen mugimenduko kideek adierazi zuten euskalduna bezalako kultura minorizatuak ezinbesteko dutela "usadio zaharrak garaian garaiko iruditeria sinboliko eta adierazleekin berriztatzea". Azken urteotako transmisio lanen artean kokatu zituzten Gau Beltza, Iruñeko Iruikokoak eta Nafarroa Behereko zein Lapurdiko Libertimendua, besteak beste. "Usadiozko adierazpide horien guztien atzean, mundu ikuskera, balioak eta sinesmenak bateratzen dira eta identitate komunitario horri funtzesko osagaia eskaintzen diona euskara da", azpimarratu zuten.



Aroa Gorostiza, Elorrión.

## "Mentalitate berria" itzulerarako

**Kirola** ELORRIO

Hogeita bat urteagaz txirrindularitza utzi eta gero, Aroa Gorostiza berriro bueltatu da 26gaz, eta, besteak beste, Euskadiko txapelketa irabazi du. "Maite Urteaga zen faborito nagusia, eta beretzat lan egitea zen asmoa; aurretik istripua izan eta ez zen sasoiko heldu, eta, beraz, bakoitzak bere lasterketa egiteko askatasuna izan genuen", esan zuen.



www.amorebieta-etxano.eus







Artxiboko irudi bat.

# Espainiako Literatura Saria, Leire Bilbaori

Leire Bilbao Barruetabeñak Haur eta Gazte Literaturako Espainiako Saria jaso zuen 'Klera' lanagaitik (Elkar); bere berbetan, sari hau "egindako ibilbidearen errekonozimendua" da; poesia lagungarri egin zitzaion gerra eta heriotza lantzeko

## Kultura DURANGO

Leire Bilbao idazleak beste sari bat gehitu dio bere ibilbide oparoari. Hain zuzen ere, Espainiako Haur eta Gazte Literaturako Saria irabazi zuen *Klera* euskarazko lanagaitik. Bere idazle ibilbideari egindako aitortza

legez hartu du saria Bilbaok. "Hainbat urte daramat literatura munduan publikatzen. 2006an hasi nintzen poema liburu bat egaz, eta urte berean haur eta gazte literaturako liburu bat kaleratu nuen. Sari hau idazle lege egindako ibilbidearen erre-

konozimendua dela uste dut", azaldu zion ANBOTOr. Epaimahaiak gai arantzatsuei "samurtasunez" heltzeko gaitasuna azpimarratu zuen. "Gai guztiak dira bideragarriak haurrentzat, beti baliatzen dut poesia horretarako. Poetikotasunak edozein

gairi buruz berba egiteko laguntzen du", gehitu zuen.

*Klera* liburuan, gerra baten erdian harrapatuta dagoen ume bat da protagonista, eta heriotzaren gai gatazkatsuari buruz aritzea erronka izan zen. "Momenturen batean edo bestean, denok izango dugu elkarrizketa bat heriotzagaz, baina, zoritxarrez, gerra batean harrapatuta dauden umeek garaiz aurretik eta mezezi bako elkarrizketa bat izaten dute heriotzagaz". Leire Bilbaok zenbait diziiplina uztartu du lan honetan. "Beste interpretazio bat ematen diote liburuari; testuez eta irudiez gainera, beste irakurketa batzuk egiteko aukera ematen du dantzaren inguruan, irudien inguruan. Letretatik irakurtzen duzu, baina irudietatik ere irakurketa asko zabaltzen ditu liburuak", esan zuen.

## Udalaren harrera

Durango Udalak harrera egin zion Bilbaori azaroan. "*Klera* liburuagaz gai zailei buruz sentsibilitate handiagaz berba egitea lortu du Leirek, gazteen bihotz-tara edertasuna eta sakontasuna galdu barik helduta", adierazi zuen Mireia Elkoroiribe Durangoko alkateak. Durangoko liburutegian urteetan egindako lana ere gogoratu zuten. "Aitorpenaz harago, Leire oso hurbil sentitzen dugun pertsona da; beti gogotsu eta modu naturalean partekatu du irakurketagazko duen maitasuna", gaineratu zuten.

## Ekaitz Herrerak Augustin Zubikarai beka irabazi du

Bekako epaimahaiak abadiñarraren 'Hondar batean arre' proiektua saritu zuen

## Kultura ABADIÑO

Ondarroako Literatur Amuak jaialdiak Durangaldeko hiru sortzaile batu zituen: Julen Apella, Amaia Trejo eta Ekaitz Herrera ANBOTOk kazetari abadiñarra. Hain zuzen ere, abadiñarrak Augustin Zubikarai nobela beka irabazi zuen, *Hondar batean arre* proiektuagaz. Herrerak 8.000 euroko saria irabazi zuen. Orain, urtebeteko epea du nobela idazteko. 2024an Julen Apella berriztarak irabazi zuen sariketa, eta berriztarak *Sakelako bihotzak* eleberria kaleratu zuen urrian; Amaia Trejo durangarrak Nanoipuin saria irabazi zuen.



Ekaitz Herrera.

## Baterajotze Feminista jendetsua egin dute Zaldibarren

Zaldibarren batu ziren 800 gazteek hausnartzeko eta kultur emanaldiez gozatzeko aukera ere izan zuten

## Erreportajea ZALDIBAR

Zaldibarko Baterajotze Feministak argazki ederrak utzi zituen Zaldibarren. 800 bat gazte batuta, antolatzaileek balorazio positiboa egin zuten. Berbaldi, tailer eta eskaintza kultural zabalaz gozatu eta hausnartu zuten, eta, euri zaparradak izan zituzten arren, kaleak bete egin zituzten. Hain zuzen ere, ekitaldi nagusieta-ko bat Zaldibarko kaleak hartu zituen manifestazioa izan zen; *Feminismoa lubaki* lelopean, gazte feministek mani-

festazio jendetsua egin zuten euripean.

Zaldibarren hartutako indarra "Euskal Herriko auzo eta herriak astintzen jarraitzeko" baliatuko dutela azaldu zuten. Sistema berri bat irudikatu eta eraikitzeko borrokan jarraituko dutela adierazi zuten, "inoiz baino gehiago, antolakuntza feministaren unea delako".

Aurretik, ANBOTO Itsaso Urizar eta Maddi Sanz antolatzaleekin batu zen. Baterajotzea Zaldibarren egiteagaz pozik agertu ziren. "Baterajotzeak

bizi dugun testuinguruari aurre egiteko eta antolatzeko balioko digu. Gazteok prekaritate egoeran gaude, politika neoliberalen bitartez zerbitzuak pribatizatzen dabilta, feminismoa despolitizatze hainbat saiakera ikusi dugu eta atzerriartasun lege arrazistak daude indarrean, besteak beste", azaldu zuen Sanzek. "Gazteok feminismoan lerratze lan egingo dugu, baita elkarren artean saretzeko ere", gaineratu zuen Urizarrek elkarrizketan.

**ZAPATUKO  
MANIFESTAZIOAN,  
800 GAZTEK  
ZALDIBARKO KALEAK  
ZEHARKATU ZITUZTEN**



Baterajotze Feminista jendetsua egin zuten.



# Eskerrik asko denoi anboto lekuan lekuko irakurleei eskuragarri ipintzen laguntzeagaitik

**ABADIÑO** ARRIANDI OKINDEGIA Muntsaratz | HIPER EROSKI  
PETITE Matiena | ZELAIETA LIBURUTEGIA

**BERRIZ** EGUN ON OKINDEGIA | ESTANKOA

**DURANGO** BERBARO | DOMINGUEZ Kioskoa | ETXEBARRIA Prentsa denda  
IBAIZABAL IKASTOLA Taberna | IKERFER Prentsa denda  
OPEN SHOP | SABECO | UDAL EUSKALTEGIA

**ELORRIO** ITURRI KULTUR ETXEA | MATZORRI OKINDEGIA  
ORBELA | TXIMELETA GOZOKI DENDA

**GARAI** HERRIKO TABERNA

**IURRETA** IURRETA KOPISTEGIA | OGIEEN ARTEAN OKINDEGIA

**IZURTZA** ANTONIO TXIKI OKINDEGIA | GASOLINDEGIA

**OTXANDIO** ASPE ESTANKOA

**ZALDIBAR** IMENDIA | OSTARGI OKINDEGIA

**ZORNOTZA** AYERDI | ZELAIETA ZENTROA





# Aranburu eta Urkiaga, lehenengo txapeldunak

Durangaldeko Kopak lehen edizio arrakastatsua izan du; Itsasne Urkiaga zornotzarra eta Irazu Aranburu mallabitarra izan ziren estreinako edizio honetako txapeldunak; Kopa antolatzeari eskerrak, proba solteetako parte hartzaile kopurua handitu egin zen

**Kirola** DURANGALDEA

Durangaldeko Kopak lehenengo txapeldunak ditu: Itsasne Urkiaga zornotzarra eta Irazu Aranburu mallabitarra. Biek ala biek bina lasterketa irabazita eraman dute txapela, gainera; Aranburuk hasierako bi irabazi zituen (7 Pago eta Amaraune), eta Urkiagak amaierakoak (Aramotz eta Aldapegora). Aranburu kopako irabazlea zela jakitun heldu zen Elorrioko probara, azkenengora. "Borroka polita mantendu dut Ander Jauregigaz; aurten arte ez nuen ezagutzen, baina hainbat lasterketatan orporik orpo ibili gara", esan zuen korrikalari mallabitarrak. Urkiaga, oster, Ko-




Irazu Aranburu eta Itsasne Urkiaga.

pako azken txanpan aritu da indartsuen. Etxean irabazitako txapelak egin die ilusiorik handiena biei. "Etxeko lasterketa irabaztea berezia da beti. Gainera, aurten iazko denbora hobetu gura nuen, eta 30-40 segundogaitik lortu nuen. Kontua estuz zegoen eta dena emanda joan nintzen helmugaraino", gogoratu zuen. Urkiagak Leire Uribe, Nora Narbaiza, Lola Oyarzabal eta Zutoia Odriozola lasterkariekin izandako lehia azpimarratu zuen.

Durangaldeko Kopak zirkuitu batean batu ditu eskualdeko mendi lasterketak, eta, antolatzailen esanetan, elkarlan horrek parte hartzaileen zein herritarren interesa piztu du. "Ez da kirol lehiaketa soil bat izan, eskualdeko mendi lasterketen komunitatea sendotzeko eta proba bakoitza indartzeko sorturiko tresna bat baino. Oso pozik gaude izandako arrakastagaz", esan zuten antolatzailak. Elkarlanak antolakuntza erraztu diela azpimarratu zuten.

ANBOTO Durangaldeko Koparen babeslea izan da eta gertuko jarraipena egin dio lehiaketari. Lasterketetako unerik onenen argazkiak web atarian daude.



Gaba Baltza.

## Gaba Baltzaren magia heldu da

**Herririk herri** DURANGALDEA

Gaba Baltza Halloween eta AE-Betako iruditegia ailegatu baino lehenagokoa da Euskal Herrian, eta aurten ere eskualdeko elkar-te ugari lan egin du Gaba Baltza, arimen gaua, berreskuratzeko. Eguzkiaren azken errainuak lotaratzeaz batera, Durangaldeko kaleak moztuz, kalabazaz, txorizodun opilez, salda beroz eta askotariko ekitaldiz bete ziren.



DAVID HERRANZ

## Sagardoy, Letamendiren azalean

**Kultura** DURANGO

Eneko Sagardoy durangarrak Asier Altuaren *Karmele* filmean parte hartu du, Jone Laspiurregaz batera. "Oraindino ere loteria sentsazio moduko bat dugu horrelako proiektu bat heltzen zaigunean", azaldu zuen Sagardoyk pelikula estreinatu aurretik.

## Diba kooperatibaren belaunaldi arteko erreleboa egin dute

Diba kooperatiban ardura postuan egondako Javier Olasok Iñigo Etxebarriari pasatu dio lekukoa

**Erreportajea** ABADIÑO

Diba baserritarren kooperatiban, Abadiñon, belaunaldi erreleboa egon da. 38 urtean ardura postuan egondako Javier Olaso abadiñarrak Iñigo Etxebarria iurretarrari pasatu zion lekukoa. Lehen sektore-

ko belaunaldi berria kooperatibako kudeaketa taldera batu dela ere azpimarratu zuten. "Ardura handia da hainbeste urtean hainbeste jende egindako lanari jarraipena ematea, eta erronka handia ere bai horretan asmatzea.

Baina talde polita gabilta lanean, eta horrek ilusioa ere badakar", azaldu zuen Etxebarriak.

Bestalde, azken urteetan sektorea zenbat aldatu den nabarmendu zuen Olasok. "Azken 38 urteetan asko aldatu da. Lehen, kasurako, esplotazio ugari zegoen esnea ekoizteko; orain, oster, oso gutxi dago. Esku bakarragaz zenbatu ditzakezu. Eta okela arloan ere asko aldatu da kontua. Txahal gutxi dago, errapetik kendu eta lasterrera kanpora saltzen delako", gaineratu zuen.



Javier Olaso eta Iñigo Etxebarria.



# Xerka, sexilioaren testigantzak zabaltzen

Xerka proiektuaren bitartez, Martxel Larraza eta Joseba Olagarai etxalartarrek izen-abizenak ipintzen dizkiote LGTB herritarren migrazio behartuari; Abadiñoko Errota kultur etxean berbaldia eman zuten, Amagoia Villanueva abadiñarragaz batera

## Erreportajea ABADIÑO

LGBT herritarren migrazio behartua sexilio edo sexerbeste lege ezagutzen da; hau da, orientazioa edo identitatea dela-eta etxean edo herrian zapalkuntzaren bat jasan edo aske bizi ez, eta landa eremutik hirigunera alde egitera behartuta sentitzen diren herritarren migrazioa. Xerka proiektuaren bitartez, Martxel Larraza eta Joseba Olagarai etxalartarrek izen-abizenak eta aurpegiak ipini dizkiete lekualdatze horiei; Euskal Herriko bost LGTB herritarren testigantzak batu eta sexilioaren kontakizuna josi dute. Berbaldiak ere ematen dituzte. Euretariko bat Abadiñon eman

zuten. Bertan, Amagoia Villanueva abadiñarrak ere parte hartu zuen. "Sexilioa oso gauza pertsonala da. Batzuek herritik irtetea pentsatuko zuten beharbada,

baina ez dira sekula irten. Beste batzuek, oster, kanpora joateko erabakia hartu, eta kanpoan bizileku seguru bat topatu dute", azaldu zuen Olagarai.



Joseba Olagarai eta Martxel Larraza.



Asun Garitagoitia eta Agustin Udabe.

## Barraren bestaldera, 30 urte joan eta gero

### Herririk herri MALLABIA

Mallabiko jubilatuen taberna Asun Garitagoitiaren eta Agustín Udaberen etxea izan da azken hiru hamarkadetan. Dagoeneko erretiroa hartu dute eta beste modu batera bizi dira orain. Mallabiko Urriko Jaietako txupine-roak izan ziren. "Herritarrekin ondo konpontzen ahalegindu gara tabernan. Orain, jubilatuta, unean bertan sentitzen dudana egitea da nire asmoa", esan zuen Udabek.

## Japoniatik Durangaldera, tesia lantzeko asmoagaz

### Akuilua DURANGALDEA

Hide Dohino japoniarrak txikitik du gustuko historia, eta urteekin pasio bihurtu zaio. Unibertsitatean gaztelania ikasi eta gero, Euskal Herriari buruzko kontuak irakurri zituen. "Liburuak irakurtzea ondo dago, baina gauzak ulertzeko gogoak ekarri nau hona", esan zuen. Denbora batean Oñatin bizitzen egon eta gero, hainbat txoko bisitatu du Euskal Herrian; tartean, ANBOToren bulegoa. Japoniara bueltatu zen tesia idazteko asmoz, "ahal duenean" berriro etortzeko promesa eginda.



Hide Dohino, ANBOToren bulegoen.

IURRETAKO UDALA

Tel.: 946 201 200

www.iurreta.eus



Iurreta  
Eleizateko Udala



Herritarren  
Arreta  
Zerbitzua

Bidebarrieta, 5  
(48215 - Iurreta)



# Emakumeen lasterketa, kirola baino gehiago

Durango Kirol Taldeak antolatzen duen Emakumeen Lasterketak morez tindatu zuen Durango beste urte batez; aurten, izen emateetan jasotako diruaren zati bat minbizia duten emakumeek osaturiko Izan Inurri elkarteari ematea erabaki zuen DKTk



Garazi Sampedro eta Arrate Igarza.

**Erreportajea** DURANGO / ATXONDO Herrikideak ez ezik, Garazi Sampedro eta Arrate Igarza lagunak ere badira. Azaroan, adiskidetasunak ez ezik, kirolak ere batu zituen. Hain zuzen ere, Durango Kirol Taldeak antolatzen duen Emakumeen Lasterketak. Aurten izen emateetan jasotako zati bat minbizia duten emakumeek osaturiko Izan Inurri elkarteari ematea erabaki zuen kirol taldeak. Igarza inurri horietariko bat da. 2023an Hodgkinen linfoma diagnostikatu zioten, odoleko minbizi mota bat. Orduan, Izan Inurri

elkartea ezagutu, eta babesgune bihurtu zen berarentzat. "Kolpe gogorra izan zen. Prozesu gogor bati ekin nion. Tratamendua irailean amaitzen nuen eta uda horretan Izan Inurri taldea ezagutzeko aukera izan nuen; kasualitate bat izan zen eta euren hartu-emanen jarri nintzen. Harrezkero inurri naiz. Niretzat ederra izan zen elkar-  
teia ezagutzea; azken batean, bizipen gogor antzeratsuak dituztenek hobeto elkar ulertzen dute. Inguruan lagunak, familiakoak eta gertukoak badituzu

ere, prozesuan bakardade handia sentitu dezakezu. Minbizia bizitzen dabilenari eta inguruan kasuren bat duenari Izan Inurri joateko gonbit egiten diot. Akonpainamendu ederra da eta babestuta sentituko da", esan zuen Igarzak.

Durango kaleek kolore morea bakarrik ez, elkartasun sare bat ere hartu zuten DKTren elkartasun keinuari eskerrak. "Elkartasunetik sorturiko ideia da. Lasterketa kausa baten aterkipean egiten dugu eta ikusi genuen Izan Inurriren filosofiak gure

lasterketagaz bat egiten duela. Gainera, ikusten genuen korrika egiteak edo kirola egiten hasteak, onura fisikoez gainera, osasun mentalean ere eragin positiboa ekartzen duela. Eta, jakina, gure lasterketan edozein emakumerentzat dago lekua", azaldu zuen Sampedrok. Kirola eta aldarrikapena batzeaz ere jardun zen. "Aldarrikapenak egiteko eta ondo pasatzeko egun bat da. Beti esaten dudan moduan, lasterketak ahalduntzeko balio behar du. Emakumeen Lasterketaren aitzakiagaz emakumeren bat kirola egiten hasten bada, bikain. Eta urte barruan kirolagaz duen zita bakarra bada ere, orduan ere bikain. Emakume guztiak dira ongi etorriak", gehitu zuen.

Izan Inurri 2019an sortu zuten Julene Illarramendik eta Miren Cuerdok, minbizia pasatu dutenen edo pasatzen ari diren pertsonen artean dauden "hutsuneak betetzeko". "Osasun sisteman hainbat hutsune dago, eta, gainera, minbizia oraindik ere tabua da. Hutsune horiei ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik erantzuteko sortu zuten taldea. Baita minbizia zuzenean edo zeharka jasaten duten herri-tarrei laguntzeko ere", azpimarratu zuen Igarzak.

## Garaikurra Lekeitiara

Kirol arloari dagokionez, lasterketa nobedadeekin heldu zen. "Aurten Landakoko atletismo pistari hasi eta amaituko da. Gainera, ibilbideak bost kilometro izango ditu aurten; aurreko urteetan ez zen heltzen", azaldu zuen Sampedrok. Saillapenari dagokionez, Zenabua Eiguren lekeitiarra izan zen bizkorrena. Oihana Azkorbebeitia eta Oihane Unzu lasterkari abadiñarrek osatu zuten podiuma.



Aitor Azkarate.

## "Entrenatzaileak baino gehiago, hezitzaileak gara"

Kulturalean egon eta gero, Aitor Azkarate elorriarra Athleticen kadeteen 2. entrenatzailea da orain

## Kirola ELORRIO

Bokazioak gidatuta, 25 urteagaz futboleko jokatzeari utzi eta bere bidea aulkian egitea erabaki zuen Aitor Azkarate elorriarra (1995). Elorrioko eta Durango Kultura-leko harrobietan hasitako ibilbideak bere fruituak eman ditu, eta Eneko Bovedaren ustekabeko dei batek Lezamako ateak zabaltu dizkio. Athleticen kadeteen bigarren entrenatzailea da orain, Ander Lafuenteren lantaldean. Ermuko talde nagusian zebilela jaso zuen proposamena, eta, lanean eszedentzia eskatuta, afizioa ofizio bihurtu du. "Detaile txikiak berebiziko garrantzia dute Lezaman, eta metodologiaren oinarria ez da soilik futbola, pertsona bera baino. Jokalaria zelan dagoen aztertzen da lehenengo, animikoki eta psikologikoki; entrenatzaileak barik hezitzaileak gairela esan daiteke", azaldu zuen. Presioaren gainetik, klubaren egituraren eta lankideen babes osoa sentitzen duela ere nabarmendu zuen: "Harrobiko lanak ematen duen poza bizi dut egunero. Adibidez, Seltón Sued eta Asier Hierro gazteak debutatzen ikustean harro sentitu nintzen", esan zuen. Etorkizunean lehen mailako talderen bat zuzentzea amets badu ere, orain Lezaman asko ikasten eta gozatzen dabilela azaldu zuen Azkaratek.

## Paule Mallagarai 'Marierrauskin' da Madrilgo Gran Vian

Paule Mallagarai durangarra pozarren dabil Madrilgo Gran Vian Marierrauskinen rola jokatu ia gauero

## Kultura DURANGO

Paule Mallagarai durangarraren izen-abizenak distiratsu agertzen dira Madrilgo Gran Vian. Hain zuzen ere, Coliseum antzokian astean zortzi emanaldi izaten ditu Marierrauskin musikalean.

Bera da protagonista, gainera. "Nire ibilbideko erronkarik handiena eta anbiziotsuena da, eta horrek prestaketa fisiko eta psikologiko zorrotza eskatzen didan arren, pozarren nago", esan zuen Mallagarai.



Briel Gonzalez eta Paule Mallagarai.



## Durangoko merkatu plazak itxura berritua du

Harategia eta urdaitegia, kafetegia eta Etartea martxan dira, jenerorik onena saltzen

**Herririk herri** DURANGO

Berrikuntza lanak amaituta, Durangoko merkatuak ateak zabaldu zituen azaroan. Ate irekiera ekitaldiak jendetza batu zuen, eta ordutik martxan dira harategia eta urdaitegia, kafetegia eta Duragaldeko baserritarren Etartie gunea. Aurkezpen egunean bertaratu zen ANBOTO, eta bisitariekin, saltzaileekin eta udal arduradunekin hitz egin zuen. Herriko merkatua dinamizatzearen aldeko mezua zuten guztiek ahotan. "Uste dut denok behar dugula horrelako zerbait, eta iruditzen zait eremu honek ostalaritza postu bat gehiago ere beharko lukeela", esan zuen Juli Zapatak.



Ateak irekitzeko eguna, jendetsua.



Eider Ajuria eta Ane Abasolo.

## Otxandion pediatria zerbitzu falta salatu dute

Legutioko pediatria lanpostua hutsik egotera, Otxandioko guraso talde bat antolatu eta batu egin zen Otxandioko, Legutioko eta Ubideko umeei berriro arreta ematea eskatzeko; horietariko bi Eider Ajuria eta Ane Abasolo dira eta ANBOTO eurekin batu zen

**Herririk herri** OTXANDIO

Eider Ajuria lau urteko ume bat eta bederatzi hilabeteko beste bat ditu, eta Ane Abasolok bederatzi eta sei urteko haur bi. Legution (Araba) pediatriaren lanpostua hutsik egon zen eta zerbitzu hori berreskuratzeko batutako taldeko kide bi dira eurak. Legution ematen diete arreta ume otxandiarrei, baita Legutiokoei eta Ubidekoei ere. Udalean 150 sinadura aurkeztu zituzten zerbitzua berriro eskatzeko. "Ez dakigu noiz arte iraungo dugun horrela. Gurasok larri gaude eta erantzun bat gura dugu. Badakigu udala eta Osakidetza hartu-emanetan jarri direla", azaldu zuen Abasolok. "Onartezina da hiru herri pediatria zerbitzurik barik egotea. Herri txikietak zerbitzuak murrizteko joerak arduratu egiten gaitu. Eta, batez ere, zerbitzu horiek desagertzeak herri edo hiri handietan zentralizatzeko. Zergak berdin ordaintzen ditugu eta oinarrizko zerbitzuak bermatu behar zaizkigu", gehitu zuen Ajuria. Egoerak herriko familiako medikuari lan karga handiagoa eragiten ziola ere azpimarratu zuten.

## Berrizko Fondak mende laurdeneko ibilbidea bete du

Fonda tabernak 25 urte bete ditu azaroan; Urtiagatarrek hartu-eman luzeagoa dute ostalaritzagaz

**Akuilua** BERRIZ

Aitor Urtiagaren birraititak orain dela 100 urte baino gehiago zabaldu zuen Urtiaga taberna (Berrizko Fonda legez ezaguna). Eraikin hura familiaren etxea ere izan zen. 1998an bota zuten.

Aitor bera 21 urte gaz hasi zen tabernan lanean, eta itxi ostean urte bian tailerrean lanean egon eta gero, Fonda taberna zabaldu zuen orain 25 hogeita bost urte. "Beste esperientzia bat bizi gura nuen tailerrean, baina ez zitzaidan

gustatu; jendeagaz hartu-eman izatera ohituta nengoen, eta horren premia nuelako zabaldu nuen Fonda, Urtiaga zegoen tokian berean", esan zuen Aitorrek. Orain, Andoni Urtiaga semea du bidelagun. Berrizko Fondako bosgarren belaunaldia da bera. "Galdetu digute ea Fondak jarraituko duen. Baina momentua heldu arte ez dakit esaten. Irakaslea eta tabernaria naiz, biak uztartzen ditut", azaldu zuen semeak. 25 urteko jardunaren ospakizuna bezeroekin partekatu zuten.



Andoni eta Aitor Urtiaga aita-semeak.

**EUSKARA**  
**BETIKO**  
[www.zornotzakobarnetegia.eus](http://www.zornotzakobarnetegia.eus)

**ZORNOTZAKO**  
**BARNETEGIA**







## Energia komunitateak Durangaldean ere saretzen

Durangaldean energia berriztagarrien komunitateak eratzen dabiltza, energia ohiturak aldatzeko

**Herririk herri** DURANGALDEA

Etengailua sakatzeko goizegi den arren, Durangaldean gutxienez lau herritan dabiltza lanean herritarrei energia berriztagarrietako trantsizioan laguntzeko asmoz: Otxandion, Elorrion, Durangon eta Abadiñon; talde bakoitza fase batean dago. Energia berriztagarrien komunitateak eratzen dabiltza, sarea muntatzen, energia ohiturak aldatu, kontsumoa murriztu eta auto-kontsumoa bultzatzeko, besteak beste. Otxandioko komunitatea dago aurreratuen eta eratuen; komunitateak muntatuta dauka instalazio fotovoltaikoa, Mainondo eskolaren eta frontoiaren teilatuan. Elorrion 2023 hasieran aurkeztu zuten taldea, Argiñola Energia Berriztagarrien Komunitatea; 24an energia bulegoa zabaldu zuten herriko plazan. Abadiñon, iazko martxoan taldea



Otxandioko instalazioa.

sortu eta bilera erronda bati ekin zioten. Durangon taldea eratze prozesuan murgilduta dago eta 100 bat lagunek parte hartu dute parte hartze saioetan. Uda ostean, kooperatibari forma ematen aritu dira, eta abenduan aurkeztu zuten.

## Euskararen etorkizunerako proposamena mahai gainean

Garikoitz Goikoetxea kazetariak eta Iñaki lurrebaso soziologoak euskararen egoera aztertzeko eta hartu beharreko bideez hausnartzeko liburua ondu dute: 'Esnatu ala hil'; Goikoetxeak aurkezpen bi egin ditu Durangaldean: Durangon eta Zornotzan

**Herririk herri** DURANGALDEA

Garikoitz Goikoetxea kazetariaren esanetan, euskararen egoera "larria" da. "Aurrerapausoak eman ditugu azken hamarkadetan, sendabideak jarri ditugu zenbait eremutan, baina oraindik ere oso egoera minorizatuan gaude. Euskaldunak gutxiengoa gara Euskal Herrian, euskararen erabilera minoritarioa da, eta, beraz, kolore arrosarik ezin da jarri", azaldu zion ANBOTOr. Antzera jardun zen *Esnatu ala hil* liburua aurkezteko Durangon eta Zornotzan egindako berbal-dietan. Bere ustetan, 60ko eta 70eko hamarkadetatik honako goraldia geldotze sintoma "la-

rriak" izaten ari da. "Hori ez zaigu aurten gertatu. Zantzu horiek azken hamabost-hogei urteetako datuek erakusten dituzte. Kaleko erabileraren %12-13ko langa hori gainditu ezinik gabilta, euskara etxean jasotzen duten umeen kopuruak ez du aurrera egin, euskaraz hobeto moldatzen direnen ehunekoa ez da 30 urteotan aldatu. Proiektzioek

**"70EKO HAMARKADAN JOERA ALDAKETARIK IZAN EZ BALITZ, ATAKA LARRIAN GEUNDEKEEN GAUR"**

diote geldotze egoera horretatik galera fasera igarotzeko arriskuan dagoela euskara", azpimarratu zuen elkarrizketan.

Hala ere, itxaropenari ate bat zabaltzen dio. "Derrigor zabaldu behar diogu atea itxaropenari. 1970eko hamarkada hartan euskararen etorkizunari begirako proiektio bat egin izan balitz, zer esango zukeen proiektio hark? Garai hartan euskarak zuen galera ikusita, joera aldatketarik gertatu izan ez balitz oso ataka larrian geundekeen gaur egun. Inportantea da zer gertatzen dabilen ikustea, lortu nahi dugun olatu edo fase berri horri heltzeko", argitu zuen.



**Mañaria**  
Jendea da herria

946 81 89 98

[www.mañaria.eus](http://www.mañaria.eus)





Mikel Urdangarin, Usue Egia eta Ainhoa Olaso. DURANGOKO AZOKA

# Usue Egia eta Ainhoa Olaso Sormen Bekagaz

60. Durangoko Azokaren beka eskualdean geratu da. Usue Egiak eta Ainhoa Olasok Mikel Urdangarin fiosofoagaz batera aurkeztutako proiektua saritu du epaimahaiak

## Herririk herri DURANGO

Durangoko Azokaren 60. edizioak aurreikuspen guztiak hautsi zituen. Gune berri bi estreinatuta, inoizko egitaraurik oparoena antolatu zuten. Gainera, Azokaren Sormen Beka Durangaldean geratu zen, beste behin

ere; Irati Bazeta abadiñarraren proiektua ezagutu genuen, eta hurrengo ere ez da eskualdetik mugitu, saria Usue Egia eta Ainhoa Olaso durangarrek eskuratu zuten eta, Mikel Urdangarin filosofo beasaindarra lagun. Hiru artistek urtebeteko epea

izango dute *Gizaberetxoak*. Joxe Azurmendiren joanak eta etorriak komikia egiteko, hau da, Joxe Azurmendi pentsalariarengan oinarrituriko obra kaleratzeko. Ainhoa Olaso zinemagileak istorioaren gidioa egingo du, eta Usue Egia ilustratzaileak iru-

diak. Durangar biek Urdangarin beasaindarraren *Gizaberetxoak* gara. Joxe Azurmendi feminismoagaz elkarriketan saiakera izan dute oinarri. Beka irabazleek hainbat autore feminista-gaz berbetan ipiniko dute Joxe Azurmendi zena; Angela Davisegaz, Simone Weilegaz, Vandana Shivagaz eta Jule Goikoe-txeagaz, besteak beste. Elkarriketak fikzionatu egingo dituzte eta gogoetak landu, elkarren arteko zubiak eraikitze-ko eta elkar aberasteko.

Hauek izan ziren epaimahai-kideak: Unai Iturriaga, Esti Albizu, Ainara Azpiazu Axi, Adur Larrea eta Garazi Arrula. Honela arrazoitu zuten erabakia: "Batetik, euskal pentsalari handi bat (gizonezkoa bera) bere garaiko mundu mailako pentsalari feministekin elkarriketan ipintzen duelako, ezohiko formatu baten bitartez. Bestetik, hain seriotzat hartzen den mundu intelektuala umoretik eta jarrera jostari bategaz lantzeko asmoa ere baloratu dugu", esan zuten. Hamabi lan aurkeztu zituzten sariketara, "askotariko estilo eta tematikadunak" denak ere. Baina *Gizaberetxoak* saritu dute, proiektu "anbiziotsua" delako.

Hiru sortzaileek 15.000 euroko beka jaso dute, Gerediaga elkartearen, Durangoko Azokaren eta Durangoko Udalaren eskutik. Datorren urteko azokan aurkeztuko dute komikia.

## ANBOTO Landue egitasmora batu da

Durangadeko 50 enpresa Landuekidera batu, eta euskararen aldeko konpromisoa berretsi dute

### Herririk herri DURANGALDEA

Landue 2025 urte amaierako ekitaldiak 60 lagun baino gehiago bildu zituen Durangoko Elkartegian: eskualdeko enpresetako ordezkariak, erakundeetako arduradun politikoak eta hizkuntza-normalizazioko eragileak. Dagoeneko 50 enpresa dira egitasmora batu direnak. 2025a oparoa izan zen Landuerentzat. Besteak beste, sareko enpresek parte-hartze masiboa izan zuten Euskaraldian, eta LANHITZ diru laguntzei esker proiektu sendoak garatu dituzte.



Landueko enpresak.



JAED elkarte Goienkale kaleko biltegian.

## JAED elkartearen lana

### Erreportajea HERRIA

JAED elkarteak 2024ko eragin soziala neurtu du. Urte horretan, Durangoko eta Iurretako 904 herritarri lagundu zieten urteko momenturen batean, horiei oinarritzko elikagaiak emanda. Hilean 179 familia eta 409 pertsona izan ziren, batez beste. Elkar-teak

109.327 kilo elikagai banatu zituen guztira. Elikagaien zatirik handiena, 78.227 kilo, JAEDek berak erosi zuen, finantziazio bide propioak erabilita.

Gainerakoa, 31.100 kilo, Bizkaiko Elikagaien Bankuko eta sal-toki txikien dohaintzetatik jaso zuten.

## Durangon aurrera doa Gaitasun Handiko Osasun Zentroa

### Herririk herri DURANGO

Osasun Saileko ordezkariak Gaitasun Handiko Osasun Zentroaren proiektua aurkeztu zuten Durangon. Plan Funtzionala izan zen kaleratu zutena, behin-behineko zirriborroa, baina aurrera begirako ezaggarri irmoak jasotzen dituen. "Esku-hartze azkarreko ibilgailu medikalizatua" ere ipini ere gura dute. Durango izango da, hain zuzen ere, halako ibilgailu bat hartuko duen lehenengo udalerrria Autonomia Erkidegoan. Halaber, Gaitasun Handiko Osasun Zentroan "personal gehiago" egongo da, egungo hiru osasun zentroekin alderatuta.





**ESKAINZA**  
0 urtetik 18  
urtera bitarteko  
hezkuntza  
eskaintza.



**HELBURUAK**  
Ikasle euskaldun,  
kritiko eta  
eleanitzak.



**ELIKADURA**  
Jantoki  
Eko-Arduratsua  
ziurtagiria.  
Bertokoa,  
ekologikoa eta  
sasoikoa.

Matrikulazioa  
urte osoan zabalik





# Durango

## San Roke Barria II

Sustapen berria salmentan



### Eraikin berria bizi-kalitate berarekin Durangon.

2 eta 3 logelako 47 etxebizitza berri, San Roke Barria II.

Sukaldea guztiz hornitua eta armairuak gela bakoitzean.



SUKALDE EKIPTUA



ARMAIRUAK



GARAJEA



TRASTELEKUA



GIMNASIOA



RELAX GUNEA